



Goierritarra

209. zenbakia

2001-10-19

**Jatorrizko
euskal
animalien
erakusketa
Ormaiztegin**



**Kilometroak
arrakastatsua
Beasainen**

**Beasainen
etengabeko
osasun
atentzioa**

**VAC
VAC**



BERTAN S.L.

EGUR BILTEGIA

VACSOL - WR^R TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA



**PITZADURA,
PIPI eta
HEZETASUNAREN
AURKAKO
TRATAMENDU
FIDAGARRIA**

Ibai-Ondo industrialdea, 5 pab. 18 area

ITSASONDO

Tel. /Faxa: 943 163 102

KREATIBITATEA



EMAKUME EKINTZAILEENTZAKO
ENPRESA KUDEAKETA IKASTAROA

HASI ZURE ETORKIZUNA LANTZEN

EMAKUME, NEGOZIO BAT SORTZEKO IDEIA BAT BADAUKAZU, ZATOZ GOIEKIRA ETA ZEURE ENPRESA SORTZEKO EMAN BEHAR DITUZUN URRATSEI BURUZ INFORMATUKO ZAITUGU.

DEITU ETA INFORMA ZAITEZ URRIAK 31 ARTE.

TEL. 943 16 18 31
943 16 15 37

ANTOLATZAILEA:



ALDIBEREKO FINANTZIATZAILEA:



EUSKO JAURLARITZA



EUROPAKO ELKARTEA
Europako Fondo Soziala

Non zer

3: HAMABOSTALDIAN NABARMEN:

Ordiziako azokaren
kokapen berria

5: Goierritarrak Bertsolari Txapelketa Nagusian.

8: Gabiriako aterpetxe berria

9: Euskal animali espezien II. erakusketa Ormaiztegin.

10-11: Kilometroak 2001 arrakastatsua.

12-13: Etengabeko Atentzio Gunea

14-25: KRONIKAK:

- 14: Zegama
- 15: Ezkio-Itsaso.
- 16: Legorreta
- 17: Ataun
- 18: Beasain
- 19: Mutiloa, Zaldibia
- 20: Segura
- 21: Idiazabal
- 22: Gabiria
- 23: Ormaiztegi
- 24: Ordizia
- 25: Lazkao

26-27: AGENDA

28-29: DEBALDEKO IRAGARKIAK

30: FOTO ZAHARRA: Luistarrak.



Plaza Nagusiko berritze lanak direla eta

Datozen bi urteetan, Ordiziako azoka Garagartza plazan

Ordiziako asteazkeneko azokak koka-pen berria du, Garagartza plaza, urriaren 17tik aurrera. Ordiziako Udalak hainbat aukera aztertu ondoren, Garagartza plaza jarri den karpan izango dira baserri-tarrak. Karparen inguruan, orain arte plaza inguruan izaten ziren saltzaileak kokatuko dira.

Orain 76 urte bezala, azoka gunea, Plaza Nagusia, berritu egingo dute eta bi urteko iraupena izango dute lanek. Ordiziako Udaletik emandako xehetasunen arabera, "orain 76 urte bezala, peria lekua garai berrietara egokitzeko ekingo zaie berritze-lanei. Bultzada berria eman nahi diogu asteroko periari eta aparteko azokei obra horiekin, Plaza Nagusiaren estalki berria inauguratu zenean bezalaxe". Bi helburu lortu nahi ditu Ordiziako Udalak ekimen honekin.

Batetik, herriko gunea urbanistikoki hobetzea eta bestetik, ohiko azoka-eskaintza merkatu berrien eskaeretara egokitzeko lanei ekitea. Horretarako, proiektuak zoladura berria aurreikusten du, bai azoka-tokiarena, baita Plaza Nagusira sartzeko diren kaleena ere. Urriaren 15ean hasi ziren lanak eta gutxi gora-behera, bi urteko iraupena izango du. Oinezkoiei eman nahi zaie lehentasuna. Udalaren esanetan, asteazkeneko azoka irabazian aterako da. "Irabazian aterako dira asteroko periak eta aparteko azokak obra horiekin, instalazioetan azpiegitura hobekuntzei ekingo zaiolako, eta hainbat ekintza garatzeko aukera emango duelako periaren irudi orokorrari begira, hala nola, saltokiak eta merkatal erakusketa, eskaintza seinalizatu eta errotulaztea, azoka sustatu eta publizitatea".


GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19
E-mail: goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Eduarne Albizu, Aimar Maiz, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Oihana Sarasola, Mari Flor Mendizabal, Iñaki Ugalde, Aitziber Murua, Amaia Ezkiaga eta Ugutz Agirre.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
Tirada: 8.300 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76
GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria**



juan sebastian bach-en
eduardo chillida

Azaroaren 20ra bitartean Eduardo Txillidaren erakusketa Ordizian

Urriaren 24tik azaroaren 20ra bitartean, Ordiziako Barrena Kutur etxeko erakusketaretoan, Eduardo Txillidaren erakusketa izango da ikusgai. 'Juan Sebastian Bach-en omenaldia' da erakusketaren izena. Liburu berezi bat izango da erakusketaren oinarri, eta protagonista Juan Sebastian Bach musikaria bera.

1977ko martxoaren 17an argitaratu zuen Parisen Artista liburua Eduardo Txillidak.

Hamaika serigrafia biltzen dira bertan, estanpaziodunak eta jatorrizko erliebe batez ilustratuak. 129 ale bakarrik argitaratu zituzten. Jatorrizko erliebea esku prentsaz, François Da Ros tipografoak egin zuen. Era berean, testuen konposizioa ere egin zuen, eskuz, berun mugikorra erabiliz. Juan Sebastian Bachen jatorrizko partituren faksimilak inprimatu zituen Da Rosek. Guztia gordetzeko kutxa berezia ere Parisen egin zen, Bernard Duvalen tailerrean.

Liburu hori bera aurkeztuko da Barrenan. Mahai handi batean, 10 gunetan, liburu horretan azaltzen diren serigrafiak erakutsiko dira. Ondoan, Bachen obra orijinalen partituren erreproduzioak lagun izango dira, Txillidaren inspirazio iturri izan ziren partiturak, autore ezberdinen poesiekin batera. 10 Cd-ek ere osatuko dute erakusketa. Aurikularren bitartez, Txillida bera inspiratu zuten, Bachen obraren zatiak entzun ahal izango dira.



MEZA: 12,30 etan
BAZKARIA: MUJIKA jatetxera
PREZIOA: 4.500 pezeta

LIERNI
2001
AZAROA
4

X. urteurrena ospatuko dute

Telleriatarren bazkaria, azaroaren 4an

10 urte dira, Telleria abizena zutenak mahaiaren bueltan elkartu eta egunpasa egiten hasi zirela. Aurten beraz, ospakizun berezia izango dute Telleriatarrek. Azaroaren 4an izango da aurten eguna. Ohi bezala, Liernin. Eguerdiko 12,30etan meza izango dute eta ondoren, ordu biak aldean, bazkaria Mujika jatetxean. Telleria abizena duen edonor joan daiteke bazkarira. Izena eman nahi duenak, dei bezala Lierniko Mujika jatetxera edo Joxe Telleria aseguruetxera (943882643). Telleriatarrek ereserkia edo himnoa ere badute, Patxi Telleriak egindako letrarekin.

Maizpide euskaltegia: familia euskaldunen bila

Iaz berriz ere martxan jarritako ekimenari jarraikiz, aurten ere Maizpideko ikasleak etxean hartuko dituen familia euskaldunen bila dabil Maizpide euskaltegia. Eskolaz gain, euskal giroan murgildu nahi ditu ikasleak Maizpidek. Baina jakina, horretarako familiak behar dira. Iaz 17 ikasle egon ziren 11 familietan banatuta. Informazio gehiago jakin edo izena eman nahi izanez gero, Lazkaoko Udaletxera, Maizpidera edo San Benito ikastolara dei liteke.

Joxe Mari Urteagak 'Ordaina zor nizon' liburua kaleratu du

Joxe Mari Urteaga lazkaotarrak 'Ordaina zor nizon' liburua aurkeztu zuen urriaren 17an Donostian. Lehenengo eleberria du lazkaotarrak.



Ordiziako Majori kiroldegian

IV. Artisaualdia arrakastatsua

Ordizian, urriaren 12tik 14ra, Gabiltzak (Gipuzkoako Artisanen elkarteak) antolatutako artisau azoka arrakastatsua izan da aurten ere. 8000 lagunetik gora izan ziren bertan. Antolatzailerak pozik dira goierritarrek emandako erantzunarekin. 54 artisau izan ziren Artisaualdian. Arabako artisauak gonbidatu zituzten aurten gipuzkoarrek. Omenaldi berezia izan zen larunbatean, eta erreketako sareak egiten dituen azken artisaua omendu zuten. Hain zuzen ere, Hernaniko Dionisio Usarraga.

Murua, Mendizabal, Sarriegi, Goikoetxea eta Munduate lehian

Urriaren 21ean hasiko da Bertsolari Txapelketa Nagusia 2001

Mende berriko lehenengo Bertsolari Txapelketa Nagusia, igandean, urriaren 21ean hasiko da Donibane Garazin. Finala abenduaren 16an jokatu da, Anoetako belodromoan. Bitarte horretan, finalerako txartela lortzeko 36 bertsolari arituko dira nor baino nor. 5 goierritar izango dira tartean: Mikel Mendizabal, Iñaki Murua, Ekaitz Goikoetxea, Joxe Munduate eta Aitor Sarriegi.

Finalera iritsi aurretik, azken laurdenak eta final aurreak jokatu dituzte 36 bertsolarik. Azken laurdenetan aritu beharko dira Iñaki Murua gabiriarra, Ekaitz Goikoetxea beasainarra, Joxe Munduate ataundarra eta Aitor Sarriegi beasainarra. Hemendik sailkatzen diren 12 bertsolariei, Mikel Mendizabal gehituko zaie. Hemendik zazpi lortuko dute finalerako txartela. Finalaurreak bi saiotara jokatu dira. Finalean, Andoni Egaña txapelduna izango dute. Final handia goiz eta arratsaldez jokatu da eta saioko puntuazio onena duten bi bertsolariek azken txanpa jo-



Mikel Mendizabal Garmendia. Itsasondan jaio zen duela 45 urte. Txapelketa honetako partaide zaharrena. Gipuzkoako Ikastolen Elkartek bertsolaritza eskolara hedatzeko duen proiektuaren kudeatzailea da hastapenetatik. Gazte mailako sariketa asko irabazitako bertsolaria da. Gipuzkoako Txapelketako finalista izan zen 1991n eta 1995ean. Txapelketa Nagusiari dagokionez, 1982az gero antolatutako guztietan parte hartu du, eta finalean izan da 1989an eta 1997an eta final-aurreetan 1982, 1986 eta 1993an.

katuko dute. Hortik irtengo da 2001eko txapelduna.

Iñaki Murua, Aitor Sarriegi eta Joxe Munduate Legazpiko saioan arituko dira, urriaren 27an, Bikuña kiroldegian, arratsaldeko 6etan. Ekaitz Goikoetxeak urrutirago izango du plaza, Amurrión (Araba), urriaren 28an, arratsaldeko 5etan.



Iñaki Murua Jauregi. Gabirian jaio zen duela 45 urte. Lanbide Eskolako irakaslea da. 1982an aurkeztu zen lehen aldiz Txapelketa Nagusira. Ordutik, guztietan hartu du parte eta 1986 eta 1989koetan finalera iritsi zen. Finalista izan zen Gipuzkoako 1991 eta 1995eko txapelketetan ere.



Aitor Sarriegi Galparsoro. Beasainen jaio zen duela 25 urte. Informatika Ingeniaritzan lizentziatua. Lizardi saria irabazi zuen 1992an eta Osinalde 1993an. Bigarrenez arituko da txapelketa nagusian; final-aurreetara iritsi zen 1997an.



Joxe Munduate Apalategi. Ataungo Aian jaio zen orain dela 29 urte. Lanbide Heziketa ikasia; fabrikako langilea. Euskal Herriko Eskolarteko txapelduna izan zen 1989an; Lizardi eta Osinalde saria irabazi zituen urte berean. Hirugarrenez arituko da Txapelketa Nagusian.



Ekaitz Goikoetxea Asurabarrena. Beasainen jaio zen duela 21 urte. Euskal Filologia ikaslea da. Sari ugari irabazia da bertso jarrietan. Bat-batean, Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa irabazi zuen 1997an eta 1998an. Lehen aldiz arituko da Txapelketa Nagusian.



AUSGEGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✱ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✱ Berogailuak
- ✱ Iturgintza
- ✱ Zeramika erakusketa
- ✱ Bainuko altzariak
- ✱ Erreforma osoak



Garena Garella. Beasaindik Sartagudara goazela!

Ukitzen dugunak hunkitzen gaitu eta horrenbeste mila euskaltzale eta ikastolazale-ren presentziak kupitu gintuen igandean Kilometroak Beasainen ospatzean. Eskerrik asko, beraz, etorri zineten guztioi. Eskerrik asko zortzi kilometroko ibilaldia egin zenutenei, eta eskumuinak, nola ez, hiru metro karratuan mugitu ere egin gabe, lanean laguntzera etorri zineten guztiontzat. Garena Garella aldarrikatu ahal izan dugu zuekin batera. Izan ere, Andramendi Beasaingo Ikastola txikia da eta zuen laguntza gabe ezin aurrera atera izango genukeen igandeko festa, eta ezta gure ametsik handiena ere: Beasaingo Ikastola.

Esker anitz, urtean zehar hainbat estuasun bizi ondoren etsi ez dugulako ikastolari eusten lagundu diguzuelako.

Aurtengo Nafarroa Oinez festa ere berebiziko erronka da. Guretzat bezala, badakigu. Ikastola txikiak garelako. Guk bezala, urte osoko erres-toari eutsi behar diote datoren igandean. Horregatik, aurreko igandean zuen berotasuna eskaini zeniguten euskaltzale guztioi eskatzen dizuegu huts egin gabe joateko Sartagudara. Denok dakigu behar duten zerbait egiten: arropak tolestatzen, jakia makinan xerratzen, edariak ateratzen, zaborrak husten...

Eta, nola ez, ikastolazale guztiok ondo gogoan dugun lehen ikasgaia: euskara da gure herria: Euskal Herria. Ikasgai hori aplikatu behar dugu berriro, gure esku eta gogoek osatzen dutelako euskaltzaleen sarea, eta gure elkartasuna delako aurrezki kutxarik onena.

Beraz, Andramendi Beasaingo Ikastolako ikasle, guraso eta irakasleonez, goazemazue batera Sartagudara, eta beraiek jaso bezate hurrena guretzat izan duzuen gozotasuna!

Tere Irastortza
(Beasaingo Ikastolako
zuzendaria)

Europako Hizkuntzen Eguna

Europako Hizkuntzen Eguna ospatzen zen irailaren 26an. Europako Hizkuntzen Urte honetan, hizkuntza aniztasuna eta aberastasuna ospatzeko egun jakin bat izendatu da, munduaren zati honetan dugun altxorrik handienetarikoa, hizkuntza aberastasuna, ezagutarazi eta goraipatzeko.

Hala ere, Europako Hizkuntzen eguna deitu den hau, Europar Batasuna osatzen duten estatuen hizkuntza ofizialen eguna soilik bihurtzeko arriskua dago.

Europar Batasuna osatzen duten estatuetan 40 milioi dira hizkuntza gutxituen hiztunak, Europako herrialde ia guztietan daude beren lurraldeko hizkuntza ofiziala ez den beste baten hiztunak. Europako historiaren eta gaur egungo errealitatearen ezaugarri saihestezina da hizkuntza gutxituen presentzia nabarmen eta egunerokoa.

Hori guztia kontuan hartuta, Europaren etorkizunari buruzko erabakiak hartuko dituztenen helburua kultur ondarearen zati baliotsu hori mantendu eta elikatzea izan beharko litzateke. Baina egunero ikusten ari garena beste bide batetik doa, Europako herri askok ez baitu bermatzen hizkuntza orok ezinbestekoa duen lege aldetiko babesa.

Elkarbizitzan oinarritu nahi dugun Europako erkidego berria osatzean, hizkuntza berdintasunaren aldeko oinarriak aldarrikatu behar ditugu, bertako hizkuntza komunitate guztiek, handiek zein txikiek, denek, beren lekua, eskubideak eta begirunea izan ditzatela. Europaren eraikuntza ez bada horretan oinarritzen ez da guztiontzako aukera berdintasuna eta parekotasun kulturalik izango eta hainbat herri Europaren proiektutik kanpo geldituko dira.

Testuinguru honetan, euskararen egoera ere ez da salbuespena. Euskarak lurraldearen arabera bost erregimen juridiko desberdin izateak, eta zonalde batzuetatik beste-etara euskaldunen eskubideak pairatzen dituzten gorabeherak euskal hiztunen eskubideen urraketa nabarmenak dakartzate.

Europako Hizkuntzen Egunaren bueltan, Ordiziako Euskararen Aholku Batzordeak aldarrikapen bat egin nahi du, euskarari dagokion lekua aitor dakion eta Europako legediaren aldetik jasaten duen diskriminazio konstituzionala gaindituz euskal herritar ororen hizkuntza eskubideak bermatu daitezen.

Joseba Leunda
(Ordiziako Euskara Aholku
Batzordearen izenean)

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

La Salle-San Jose Ikastetxea: euskararekiko motibazioa indartuz

Izpi pertsonaia sortu dute

La Salle - San Jose ikastetxeko irakasleek berriro ere ipuingintzan oinarriturik ikasleen euskararekiko motibazioa indartuko duen pertsonaia sortu dute Potxolotxoekin egin zuten moduan, oraingo honetan LHrako egokia izango den Izpi pertsonaia sortuz.

Tamalgutxi tximeleta moduko elefante argal bat da. Bere planetan euskaraz elikatzen direla eta, gure hizkuntza kuttunaren egarri planeta ezberdinetatik dabil. Indarge, hegan egiteko adorea galdu eta gurera gerturatu da. La Salleko ikasleen lana izango da egunero euskaraz hitz eginez, Tamalgutxi Potxolotxo bihurtarazi, eta guri - guri indarrez blai, etxerantz hegaldatuz hari hurrengo urtera bitarteko agurra ematea.

Potxolotxoren agindua zen Euskarari eustea, ondorioz, Lehen Hezkuntzan haren ondorengotza hartuko zuen Izpi sortu da gurean. Lamia honek Beasaindarra den Artzain bat liluratzen du ipuinean. Gure leienda eta ondare kulturala jasoz, ikasleek adats hori eta luzeko jeinu hauen misterioak barneratzen dituzte. Urrezko orraziz eta kantu magikoz guztiak liluratzen gaitu Iz-




pik. Artzainaren eta Izpiren maitasuna zorigaiztokoa eta ezinezkoa izango da, baina hala ere, begiak malkoz zitu-tzelarik elkar maite dutela esango diote bata besteari. Izpik laiotzeko putzu sako-nenenean ere gogoan izango du Martin. Horregatik, Gorua eta ardatza oparitzeaz gain, Arraintxo bat ere oparitu-ko dio. Bihotzez zaindu beharko du, berarengan bere arima baitago eta Izpik maite dituen errekazuloko ur eta lohi berdina arnasten baititu. Gure ikasleen lana izango da arraintxo hau euskararen doinu sotilez elikatzea. Urte guztian izango dute bihotze-an.

Gorua eta ardatza ez beza-la, Martinek ere arraintxo bat betirako izan zuen bere ondoan. Betirako negarrez ge-

ratu zen Izpi Martin urrun-tzen ikustean. Malkorik mal-ko, haiek erori ziren lekuan iturri bat sortu omen zen, la-mia eta artzainaren arteko ezinezko maitasunaren oroigarri. Herrian dioten arabera, udazkeneko arratsalde epeletan hostoak firin faran dabil-tzanean, oraindik ere, mendi-ko putzu sakonenetik Marti-nenganako minak sortarazi-tako lauturu sentitu bat ent-zun omen daiteke. Gure ikastetxeko poz eta zorionak baretuko ote du behintzat, euskararen indarrak bultzat-urik, Martin eta Izpiren maitasun mina.

Amaia Ezkiaga



ondoeta

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Gabiriako aterpetxea inauguratuko da urriaren 26an

Turismo material berria ere aurkeztuko da egun berean

Gabiriako Beheko Errota baserria berritu eta aterpetxe bilakatu du Agustin Galabidek. 54 lagunentzako lekua du. 1600. urtean ere zutik zegoen baserria da. Errota bera martxan jartzea gelditzen da orain baina hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren lana izango da. Urriaren 26an inauguratuko da ofizialki, Goierriko turismo material berria aurkeztearekin batera.

Bi urteko berritze lanak bukatu eta Gabiriako Beheko Errota aterpetxea bisitariak hartzeko prest dago dagoeneko. Urriaren 26an inauguratuko da ofizialki, nahiz eta uda partean hainbat lagunak estrenatu zuten. 54 lagunentzako lekua dago. 14 oheko 3

logela eta 4 oheko beste hiru. Sukaldea ere erabilgarri dute bertaratzen direnek.

Zumalakarregi museoarekin batera pakete didaktikoa eskaini nahi die ikastetxeei. Hala ere, edozein partikularrentzat ere irekia dago aterpetxea. Bilera gela edo ikasgela bat ere badu. Ormaiztegi-ko Itxune tabernara, 943887351 telefono zenbakira dei daiteke erreserbak egiteko. Aterpetxeari buruzko xehetasun gehiago Gabiriako kronikan duzue.

Goiturreko Nikolas Osinaldek adierazi digunez, Goierriin dagoeneko 800 ohe ditugu, hotel, nekazalturismoko etxe, landetxe eta aterpetxeetan. Turista mota ezberdinentzako aukera. Goierriin 6 aterpetxe daude guztira: Zerainen, Seguran, Gabirian, Ordizian eta Ataunen 2.



tan, beraz, Goierriki ongi-etorria emango zaie turistei, lau hizkuntzetan.

Seinaleztapena

Dagoeneko oharatuko zireneten Goierriko zenbait herriren sarreran, seinaleztapen informatiboak jarri dituztela. Goierriin dagoela jakingo dute turistek, eta herri bakoitzaren ezaugarria adierazten da bertan. Goierriko 8 herritan jarriko dituzte: Ataun, Zerain, Beasain, Ormaiztegi, Ordizia, Idiazabal, Segura eta Zegaman. Pixkanaka-pixkanaka ari dira jartzen. Goierriko sarrere-

Goierri Gipuzkoa - Euskadi

Trikharrien artean pasatzea, Aralar eta Aizkorriko Parke Naturalean barneratzea, perretxikuak biltzea, baserriko bizitza berriak ezagutzea, euskara ikastea, Idiazabal jatorriko gazta dastatzea, sagardo kupelarik txotsu egitea, mendi bizibidean ibiltzea,



edo zaldi gainean lasterka egitea. Goierriin, atsegin handiz egin daitezkeen ekintzetako batzuk dira.



Material berria

Goierri promozionatzeko material berria prest du Goiturrek. Beasaingo Kilometroak jaian eta Artisaualdian banatu zuten. Postal itxurakoa da eta Goierriki zer eskaintzen duen azaltzen da laburbilduta, informazio gehiago www.goierri.org helbidean dagoela zehaztuz.



Nagusi
Optika
Osakidetzarekin
hitzarmenari atxikiak
☎ 943 161 999 Nagusia, 10 BEASAIN

BERRIZ ARANBURU
ERROPADENDA
Nagusia, 8 ☎ 943 88 04 53 BEASAIN

200 kiloko betizua erreko da

Euskal animala espezien

II. erakusketa Ormaiztegin, urriaren 21ean

Iaz izandako arrakastaren ondoren, aurtan ere, Ormaiztegin, euskal animala espezien erakusketa izango da, urriaren 21ean. Abereak Zubipe kiroldegiaren inguruko zelaletan izango dira ikusgai. Arraza berezi hauek gehiago ezagutzeko aukera ere izango da.

Erakusketa euskal animala espezien elkarleen ekimene-tik sortu zen azoka berezi hau Ormaiztegin. Gipuzkoa-ko Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentua, Goimen, Irizar eta Ormaiztegiko Udalaren laguntzaz burutzen da.

Euskal Herrian berezko jatorrikoak diren abereak izango dira ikusgai eta horietatik asko autoktonoak izateaz gain, desagertzeko arriskuan ere badaude. Abere hauek zaindu eta kontserbatzeaz ohartu nahi dute antolatzaileek.

Erakusketaren aurkezpena egiteko asmoz eta sarrera gisara Aranzadi Zientzia Elkarteko Etnografia saileko zuzendaria den Fermin Leizaolak, etxeko euskal abereei buruzko hitzaldia emateko zen urriaren 17an Donostian.



Iaz izandako arrakasta bera espero dute ormaiztegiarrek.

Ekintza osagarriak

Aurtengo azoka egun honetan beste hainbat ekintza ere izango da bertaratzen direnentzat. Goizean zehar, eztia, talo eta sagardoa dastatzeko aukera izango da horretarako prestaturiko gunetan. Herriko trikitilariak giroa alaituko dute. Goizeko 11etan, hipika erakustaldia izango da eta jarraian, betizu txikien sokamuturra. Beste ekitaldi berezi eta goxo bat ere izango da. Bezperan hasita, 200 kilo inguruko betizua erre eta eguerdiko 12,30ak aldean, pintxoak dastatzeko aukera izango da.

Erakusketa, urriaren 21ean, Zubipe kiroldegiaren inguruko zelaletan

Egunerako egitarau zabala prestatu da. Iaz baino abere gehiago eta beste hainbat berrikuntza ere ikusgai izango dira. Besteak beste bertan erreko den betizua dastatzeko aukera ere izango da. Egunerako prestatu diren ekitaldi nagusiak hauek dira:

10:00etan: Euskal animala espezien II. erakusketaren irekitze ofiziala.

10:00etatik 14:30era: Erakusketarako egokituriko gune berezietan abere espezie desberdinez osaturiko erakusketa izango da ikusgai. Gune bakoitzean megafoniaren bitartez abereen aurkezpena egingo da, elkartekideek abereei buruzko argibide zehatzak emango dizkiete bertara hurbiltzen direnei. Goizean zehar, abereen ezagupenak areagotzeko baliagarri izango diren bideoa eta argazki erakusketa bisitagai izango dira.

11:00etan: Betizu, terreña eta pirenaiken aurkezpena.

11:00etan: Euskal erleen elkartekoen eskutik euskal erlearen aurkezpena egingo dute. Ele elkartekoek latxa ardien aurkezpena egingo dute.

12:00etan: Pottoken aurkezpena, lehiaketa morfologia eta jarraian sari-banaketa.

12:30ean: Bezperan hasi eta goizean zehar bertan erreko den 200 kilo inguruko betizu pintxoak dastatzeko aukera.

13:00etan: Hipika erakustaldia.

13:30ean: Betizu txikien sokamuturra.

14:30ean: Partaideentzat bazkaria.



GUK-LAN

Berogintza - Iturgintza - Gasa

Tel.: 943 16 12 77 Faxa: 943 16 09 33
Okorro 6 - behea ORDIZIA

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
943 88 51 68
ORMAIZTEGI

Kilometroak 2001: inoiz egin den Gipuzkoako Ikastolen jairik jendetsuena

120.000 lagunetik gora bildu ziren Beasainen

Oraindik ere biltze lanetan harrapatu genituen Kilometroak 2001en arduradunak. Balorazio ofizialik egiteko astirik ez badute izan ere, lehenengo inpresioa kontatu digu Igor Elortza koordinatzaileak. Oso balorazio ona egiten dute. Normaltasuna izan zen nagusi. Alde ezberdinetatik zorionak jaso eta jaso ari omen dira. Beasaingo Ikastola indartuta, sendotuta atera da Elortzaren esanetan, eta arazoak arazo, Ikastolak aurrera egingo omen du. Aldi berean, eskerrik beroenak eman nahi dizkie antolakuntzatik, lanean aritu edota egun pasa Beasaina etorri ziren guztiei.

Zorionak. Horixe izan da Andramendi, Beasaingo Ikastolakoei urriaren 7az geroztik gehien entzun duten hitza. Hornitzaile, ikastola, jende arruntaren... zorionak jasotzen ari dira. "Biltze lanean ari ginela jende asko hurbildu zaigu zoriontzera. Inoiz ikusi duten antolakuntzarik onena izan omen da", dio Igor Elortza, Kilometroak 2001en koordinatzaileak. Eguraldiak, noski, asko lagundu zuen egunean bertan. "Urtebeteko ahalegina kontentsatuta gelditu da eta fruitua eman du", aitortu digu ormaiztegiarrak.



25 urteotan Kilometroak jaia antolatu duten Ikastolak omendu zituzten, Beasaingo 9 bikote ikastolazale historikorekin batera.

Eskerrak

Eskerrak. Horixe da Andramendi, Beasaingo Ikastolakoei gehien erabili duten hitza. Urte osoan eta egunean bertan lanean aritutako ehunka lagunei, CAF enpresari, Beasaingo Udalarira... eta nola ez, egunpasa etorritz Beasaingo Ikastolari laguntza eman zioten guztiei eman nahi dizkie eskerrak Beasaingo Ikastolakoei.

Indarberrituta

120.000 lagunetik gora bildu ziren Beasainen. Marka berria jarri du Kilometroak 2001ek. Andramendi, Beasaingo Ikastola, Gipuzkoako ikastolarik berriena eta txikiena izanik, "Beasaingo Ikastola bera, ikastola proiektuan sinisten dugunok, indartuta eta sendotuta atera gara. Goierritarrek Beasainen ikastola aurrera atera-

Ordezkaritza zabala

25. urteurren arrakastatsua bizi izan zuen Kilometroak jaiak. Eguraldia lagun, 120.000 lagunetik gora bildu ziren Beasainen. Politika, gizarte eta ikastola munduko ordezkari ugariak ere bat egin zuten egunarekin. Eusko Jaurlaritzatik Anjeles Izutueta, Hezkuntza sailburua eta Xabier Aizpurua Kultura sailburuordea izan ziren; Foru Aldunditik Luis Mari Bandres Kultura diputatua eta Iñaki Alkiza Batzar Nagusietako lehendakaria; Beasaingo Alkatea, Jon Jauregi; EAJtik Markel Olano, Mikel Arregi eta Josune Aristondo; EAItik Martin Aranburu eta Onintza Lasa; Batasunatik, Arnaldo Otegi, Jon Gorrotxategi eta Anjel Mari Elkano; IU-EBtik Antton Karrera; Antonio Campos Ikastolen Federazioko lehendakaria; Xabier Mendiguren Kontseiluako lehendakaria; Karlos Argiñano sukaldaria...

2002ko Kilometroak jaia Urretxu-Zumarragako ikastolak antolatuko du.

Autoaren zozketa

● Mazda Premacy autoa: 04862

Sarreretako boletoen zozketen zenbakiak

● Kantabrian, 2 pertsonentzako asteburua: 47.165

● Afariak Argiñano jatetxean: 13.602, 10.356, 69.275.

● Orbea txirrindua + Euskaltel taldearen mailota: 17.282.

● 11 asteburu nekazalturismoan: 76.870, 03.104, 58.741, 38.681, 58.925, 11.738, 78.925, 30.582, 25.220, 17.337, 45.132.

tzea nahi dutela garbi gelditu da. Azken batean Kilometroak jaia horretarako egin da. Beasaingo Ikastolak indarra hartu du eta arazoak arazo aurrera egingo du", dio Elortzak. "Beasaingo Ikastolaren sinisten dugunok urte osoan lana egin dugu eta sinisteak proiektuak aurrera ateratzea dakar, sinistu gabe proiektuek porrot egiten dute. Sinismen horrek lehenengo arrakasta bat eman digu, Kilometroak eguna, baina hori errematatu egin behar da eta ikastola hau, proiektu hau, aurrera atera beharra daukagu. Bidean laguntza beharko dugu eta Kilometroak jaian izan dugun bezala, bidean ere laguntza beharko dugu eta jendeari laguntza hori eskatzen diogu", gaineratu du.

Kilometroak 2001 iruditan



Josu Erguinek, Leire bere alabak, eta Errose Miren Elkoroberezibarrek moztu zuten zinta.



Renfek eskainitako zerbitzu bereziari esker, goizean goizetik jende ugari hurbildu zen Beasaina.




Joxe Migel Barandiaran plazan, haurrek gogotik gozatu zuten beraientzako prestaturiko egitarauarekin. Gazte eta helduek ere bai. Ekitaldi arrakastatsuak izan ziren.



Gudugarretatik Loinatza bitartean, ibilbidean zebilen jendetza ikus zitekeen. Beasain 'ezezaguna'-k jendea txunditurik utzi zuen, baita beasaindarrak beraiek ere.



Eguraldia lagun izan zuen Kilometroak 2001 jaiak. Ittolako guneko zelaian milaka eta milaka lagun elkartu ziren.



Garbitasunaren aldetik, lan handia egin zuten Beasain txukun uzten. Antolakuntzatik adierazi digutenez, Diputazioaren birziklapen kanpainaren panpina ez dute aurkitzen. Inork aurkituko balu, Ikastolarekin jarri harremanetan.

Osasun zerbitzuak ez du etenik Goierrin, Beasaingo Etengabeko Atentzio Guneari esker

B easainen anbulatorioan ohiko zerbitzuak bukatzen direnean, Etengabeko Atentzio Gunea (EAG) hasten da martxan. Osasun zerbitzuak ez du etenik Goierrin. Osakidetzaren lehen mailako atentzio sistemaren barruan sartzen da EAG. Beasain eta inguruko herriak bere gain hartzen ditu eta Beasaingo osasun-zentroan kokatua dago. Zerbitzu honen 2000. urteko balorazioa egin du bertako arduradunetarik bat den Josu Arrietak.

Lehen Mailako Osasun Atentzio guneak ixten direnean Etengabeko Atentzio Gunea (EAG) osasun zerbitzua hasten da lanean. Beasaingo Anbulatorioan kokatzen da. Eskualde osoari osasun atentzioa eskaintzen dio, ohiko osasun zerbitzuak ixten direnean. Beraz, edozein



arazo izanda ere, Beasaingo anbulatorioan nork sendatua eta zaindua bada. Gune honen ordutegia koadroan duzue zehaztuta.

Lau mediku, lau erizain eta lau zelari daude EAGan. Hamabi langile hauek txandakatu egiten dira, eta egunero mediku bat, erizain bat, eta zelari bat izaten dira. Zelariek zerbitzuan egiten dute lana, eta zenbait kasutan, behar denean, erizainari nahiz medikuari laguntzen die.

2000. urteko balorazioa

2000. urteko balorazioa egin dute bertako arduradunek eta oro har, gustura daude emaitzekin.

Emandako datuen arabera, 14.364 lagunek jaso zuten iaz osasun asistentzia Beasaingo Etengabeko Atentzio Gunean. (Ikusi taula). Hilero 1.000 lagunetik gora pasatu ziren. Abuztuaren hori bai, oporrak zirela eta, kopurua gutxitu egin zen. Abenduan, berriz, osasun asistentzia eske joandakoak, gehiago izan ziren.

Ordutegia

- Astelehenetik ostirale-
ra: 17:00etatik 08:30era.
- Ostiral, larunbat eta jai
bezperetan: 17:00etatik
09:00etara.
- Igande eta jaiegunetan:
09:00etatik 08:30era (hu-
rrongo eguna jai eguna bal-
din bada, 09:00etara).

EAGeko zerbitzura jende kopuru gehiena arratsaldeko eta goizeko ordutegian joaten da. Gauetan, berriz, batz bestekoa kalkulatu, eguneko ia 5 lagun pasatzen dira.

Asistentzia eske doazena, gehienak, %40, Beasaingoak izan ziren iaz, zerbitzua bertan kokatua dagoelako, eta biztanleriaren gehiena, ia %33, bertan bizi delako. Eskualdeko hiru herri nagusietakoak, Beasain, Ordizia eta Lazkaoak dira Beasaingo EAGra gehien etortzen direnak. Dena den, eskualdeko beste herrietatik etortzen diren lagunen kopu-

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elozegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

Ford
MUJIK



BEASAIN ☎ 943 88 74 00

OINETXE

oinetako konponketa

Konponketak 24 ordutan	
Oinetakoak	Kolorezko
Poltsak	kremak
Gerrikoak	Kolorezko
Zorua	tintak
Tindaketak	Plantilak
Brotxeak	Lokarriak
Errematxeak	Larruzko lo-
Zuloak	karriak

Ordutegia: 6:00-14:00 eta 16:00-20:30

Kale Nagusia, 44 Tel.: 943 88 90 89
BEASAIN

Hilabetez hilabete

Urtarrila	1.556
Otsaila	1.055
Martxoa	1.105
Apirila	1.326
Maiatza	1.192
Ekaina	1.213
Uztaila	1.278
Abuztua	846
Iraila	1.006
Urria	1.264
Azaroa	1.123
Abendua	1.400
Guztira	14.364

rua garrantzitsua da. Zentroaren kokapen estrategikoa, eskualdeko herri guztiekin ondo lotuta egotea, izan daiteke inguruko herrietan Beasaingo EAGko zerbitzuak duen arrakastaren arrazoi bat, Josu Arrietaren esanetan. "Zumarragako ospitalea nahiko urruti dagoela izan daiteke beste arrazoi bat. Baita Beasaingo Etengabeko Asistentzia Gunean eskaintzen den asistentziaren kalitatea ere", gaineratu du.

Lagin bat egin eta apirileko datuak arakatu eta sailkatu dituzte EAGkoek. Honela, 54 lagun lan istripuen ondorioz atendituak izan zirela azaltzen da. Nahiz eta apirilean Aste Santuko oporrak direla eta, lantokietako jarduera asko jaitsi, atentzio guztien ia %5 izan zen. "Era berean, lan istripuak atendi-



2000 urteko apirileko datuak

Ataun	44	%4
Beasain	462	%40
Idiazabal	39	%3
Itsasondo	5	%0,4
Lazkao	165	%14
Olaberria	14	%1
Ordizia	245	%21
Ormaiztegi	20	%2
Segura	30	%3
Zaldibia	30	%3
Zegama	23	%2
Zerain	7	%1
Eskualdetik kanpo	61	%5
Guztira	1.145	

tzeko Mutuek duten ordutegi murrizta izan daiteke hain kopuru handiaren arrazoia", azaldu dute.

EAGko zerbitzuan zirkulazio istripuak ere atenditzen dira, baina ez dira asko, eta 2000. urteko apirilean, 9 izan ziren zirkulazio istripuen on-

dorioz osasun asistentzia jaso zuten, %0,8.

Lagin berean, hau da, apirilean, EAGtik ospitalera 88 lagun bidali ziren, %7,6.

Pediatriko adinean dauden portzentaje handia da, %22.

Zerbitzua euskaldundu beharra

Eskualdeko biztanleriaren bi heren euskalduna, %13a ia euskalduna eta %21a erdalduna da. Arrietaren esanetan, EAGk eskaintzen duen zerbitzuan ez da datu hau islatzen. 4 medikuetatik bakarra da ia euskalduna. Erizaintetan, 4tik bat euskalduna da eta beste bat ia euskalduna. Zelarietan, biak dira euskaldunak.

Portzentajeetara joz, 2000n, zerbitzuan euskaldunen portzentajea %25-ekoa da, ia euskaldunena ez da %15a, eta erdaldunena %60a da. "Gizartearen eta zerbitzuaren artean desberdintasuna azaltzen dute datuek. Gizartea oso euskalduna den bitartean, zerbitzuan euskaraz aritzeko gai direnak oso gutxi dira. Egoera hau biztanleriaren hizkuntz eskubideen aurkakoa izateaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden legeen aurka ere badago. Osakidetza euskaldunen eskubideak bermatu behar ditu, eta horretarako behar diren baliabideak jarri behar ditu. Oso eremu euskalduna den eskualdearen biztanleriaren hizkuntz eskubideak urratuak izan ez daitezten, EAG zerbitzua euskaldundu egin behar da, eta hau izan behar du Osakidetza hurrengo urteetako erronka nagusietako bat", dio Josu Arrietak.

Goierri Bus
Segurtasun eta kalitatezko zerbitzua
Tel.: 943 72 52 50
Faxa: 943 72 58 70

Mota guztietako autobusak
19, 29, 55, 60 eta 82 plazatakoak
Literadunak komunarekin



LADA
Ssang Yong
N-1, z/g
943 88 09 47

ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA

San Martin feriaren inguruan hainbat ekitaldi

Aurten, azaroaren 17an ospatuko den San Martin Feriaren inguruan, Zegamako Udalak zenbait ekintza antolatu ditu, besteak beste, bi sukaldaritza ikastaro (bata ehizari buruzkoa, azaroaren 8an eta bestea perretxikoei buruzkoa, azaroaren 13an) eta bi dastatze (bata ardoari buruzkoa, azaroaren 15ean eta bestea gaztari buruzkoa, hemen ardi latxa eta Idiazabal gaztari buruz hitzaldia ere emango da, azaroaren 14an) azken hau Kultur Etxeak antolatu duelarik, bestalde, azaroaren 15ean, ardo dastatzearen ondoren afaria ere izango da.

Ikastaro hauetan, zenbait teknika nahiz teoria azaltzeaz gain dastatzeak ere egingo dira, hori dela eta bertan parte hartu nahi duenak Udaltxean izena ematea ezinbestekoa du urriaren 31 aurretik.

Ikastaro bakoitzaren matrikula 500 pezetakoa da eta afarian parte hartu nahi duenak beste 2.500 pzta ordaindu behar du.

Amezti mendi elkartearen irteera

Datoren igandean, urriaren 21ean, Albi-Hirumugarrieta-Igaratza-Albi ibilaldia egiteko asmoa dute Amezti Men-

Ehungintza enplegu tailerra

Zegaman Ehungintzako Enplegu Tailer bat martxan jarriko da datorren abenduan, horretarako hautaketa prozesua ere martxan jarri duelarik INEMek.

Ekimen hau Goierriko emakume langabetuei zuzenduta dago eta urte batez formazioa eta lana tartekatuz ia galtzearen lanbide bat ikasteko aukera izango dute Goierriko 16 emakumeek, gainera ikasketak dirauen urtean soldata bat jasoko dute emakumeek.

Enplegu tailer hau Zegaman izateko bi baldintza eman dira esan behar, alde batetik Zegaman duela bi urte ezker, Zegamako Udalak utzitako geletan Marixular Ehungintza Tailerra bertan egotea eta beste aldetik Goiekik "emakumeak lan munduan sartzeko berdintasun printzipioa aurrera eramateko ekimena, bi alde hauek uztarturik eta INEMek eman duen babesari esker Enplegu tailer hau jaio da.

Ikastaro honen helburua, ikasketak bukatu eta gero Kooperatiba bat martxan jartzea izango litzateke, eta baita artisau denda bat irekitzea ere bertako materiala erakutsi eta saldu asmoz. Horrezaz gain Ehungintza museo bat bultzatuko da, eskoletako haurrei eta turistei zuzenduta. Bestalde lanbide hau ikasi nahi dutenek urtero izango dute ikastaro bat.

Xabier Arakama zegamar musikaria munduan zehar

Zegamarrok aspaldidanik ezagutu ditugu Arakama Anai-arrebak trikitixa joz Zegama eta hainbat inguruko herrietan eta musikarako duen afizioa dela medio Xabier Arakama zegamarrak hainbat bidai eginak ditu munduan zehar. Bere kanporako ibilaldiak 1995ean hasi ziren, garai hartan Ingalaterra eta Frantzia bisitatu zituen trikitixarekin. 1998an Estatu Batuetan izan zen herriz herri bi hilabete luzez; ondoren Holanda, Suitza, eta Austrian ibili zen 2000. urtean, bertan trikitixa jotzeaz gain hainbat ikastaro ere eman zituelarik. 2001ean berriz, Bartzelona eta Estatu Batuetan ibili berria da udan.

Xabier Arakama 9 urte zituela hasi zen trikitixa jotzen eta egun 28 zortzi gauean dituelarik, 22 urte ezker trikitixa du ogibide eta bizimodu, alde batetik Iruñean irakasle modura dabilelako eta bestetik herriz herri musika jotzen dabilelako.



Xabier Arakamak, trikitixa jotzeaz gain, bi taldeetan parte hartzen du musikari modura, horietako bat Zarauzko Arkajun taldea da eta duela gutxi disko bat argitaratu omen du.

Bestalde beren abesti ezagunetako bat, 2000. urteko Nafarroa Oinezko musika aipatu behar, hau Trikitio taldearekin kaleratu zuelarik. Honetaz gain, "Tierra" izeneko laburmetraiaren soinu banda egin du.

Nafarroa oinez

Aurten Nafarroa Oinez, Lodosa eta Sartagudan izango da, bertara joan nahi duen zegamarrentzat Kultur Etxeak ohi bezala autobusa antolatu du. Irteera goizeko 8:30etan izango da Kooperatiba aurretik eta itzulera iluntzeko 7etan izango da Lodosan.

Zegamarrek dute lehentasuna autobus honetan joateko eta tokirik sobratuko balitz Zegaman erroldatu gabe daudenek ere aukera izango dute la autobus hau hartzeko izena emandako hurrenkeran.

III. San Martin torneo

Larunbatero San Martinetako III. Torneoko kanporaketak jokatzen ari dira Zegamako Udal kiroldegian. Goizez 10etatik aurrera eta arratsaldeaz 3etatik aurrera.

Edurne Albizu

Urrian kultura ugari

Urriaren 14an hasi zen aur-tengo kultur astea, Araba al-dera egin zen irteerarekin. Atzo berriz, urriak 18, Zumalakarregi eta karlismoa gaiari buruzko hitzaldia eman zuen Mikel Alberdik. Dena den, oraindik bada zer ikusi eta zer entzunik.

Urriak 20, larunbata:

16:00etan: Santa Luziako Kultur etxean, umeen jolasak. Jolas zahar eta berriak; ipuin-kontaketak, merienda, diskoteka...

Urriak 26-27

Gazteen topaketa Ezkioko aterpetxean. 13 eta 20 urtekoen artekoa izango da. Izena emateko urriaren 22a da azken eguna. Liburutegian (943 72 35 25) telefonoan eman behar da izena.

Urriak 27, larunbata:

12:00etan: Igartubeiti museoa ikustea. Ezkio-Itsasoko-entzat Gipuzkoako Foru Al-dundiaren gonbidapen berezia da.
20:00etan: Ezkioko Osta-

Erretiratuen eguna

Aurten ere urriaren amaierarekin batera badator jubila-tuen eguna. Urriaren 28an izango da egun hau.

Eguerdiko 12etan Santa Lutzin meza izango da eta An-duaga Elkartean salda hartu ondoren, bazkaria Labekoa ja-tetxean izango da.

Autobusa 11:15ean Itsasotik irtengo da eta Ezkiotik iga-ro ondoren, surtidorerraino joango da ohiko lekuetan jendea bilduz, ondoren Santa Lutzira eramateko.

Izen ematea udaletxean egin behar da, urriak 22 baino lehenago. (Telefonoa zenbakia: 943721303).

Erakusketa

Herritarrek egindako ze-ramika, egur-lantze, ma-rrazki, gurutze-puntuko la-nak ikusgai izango dira Santa Luziako Kultur etxe-an. Ordutegia honakoa da: astelehen, asteazken eta os-tiraletan, arratsaldeko 6eta-tik 8etara; larunbatetan, goizez, 10etatik 1era.



tuan, kantu-afaria. Baratxuri zopa, oilasko errea entsalada eta patatekin, arroz esnea... eta abestiak. Prezioa: 1.500 pezeta. Urriaren 24 baino le-hen eman behar da izena Ez-kioko Ostatuan (943720267).

Urriak 28, igandea:

Erretiratuen eguna.

Azaroak 10, larunbata:

19:00etan: Herriko artisten ekitaldia. Abesbatza, askota-riko soinu-joleak... Santa Lu-ziako Kultur etxean.



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.

Segurako Erosle, **Idiazabalgo** Ahizpak eta **Ormaiztegi**ko Iñaki Erosle.



N-1 errepidea, lurre auzoa
☎ 943 88 43 01 **OLABERRIA**

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ez. - BEASAIN

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24

☎ 943 88 95 83

LAZKAO

Kale Nagusiaren birmoldaketaren aurreproiektua

Udalak herriko Kale Nagusia birmoldatzeko asmoa dauka, Udaletxearen atzealdetik beste kale bat ireki eta bertan ibilgailuentzako aparkamendu zabal bat jarritz. Kale Nagusiari tratamendu egokiago bat ematea ahalbidetu nahi da, oinezkoiei lehentasuna emanaz.

"Gure herria aurrez gurutzatzen zuen N-1a izanaren ondorioz, batzuetan estuak eta besteetan izan ere espaloiak erakartzen dituzten mugak fisikoak bezalako herri dinamiko baten bizitzan izaten diren etengabeko lanekin batera, gure herria den Legorretak gaur egun bertako bizilagunek merezi ez duten kale nagusi bat izatera eraman gaitu", dio Xabier Iraola alkateak.

Arrazoi horretatik abiatuta, Udaletxetik Kale Nagusiaren erdiko zatia berritzea bultzatzea erabaki da. "Berrikuntza osoaren lehenengo zati bat dela jakinik, eta horretarako aparkalekuak atzeko kalera eramanez oinezkoari lehentasunezko tratua ematea helburu duen aurreproiektua enkargatu dugu, espaloiak zabaltzea eta dauzkagun traba arkitektonikoak kentzea bere baitan duenak",



zehaztu du alkateak.

Legorretarren iritzia jakin nahirik, Kale Nagusiaren erdiko zatia berrikuntza prozesuan parte hartzeko deia luzatu du Udalak. Udaletxeko goiko hallean maketa eta aurreproiektuaren planoak ikusi eta aztertu, eta iritzia emateko aukera dago. Alegazioak, hausnarketak eta kexak aurkezteko ordua orain dago. Azaroaren 8ra bitartean, bulego ordutegian, (goizeko 7etatik 3etara), udaletxeko langileek argibideak emango dituzte. Informazio gehiago nahi izanez gero, berriz, arkitectoak urriaren 18an, 25ean eta azaroaren 8an, arratsaldeko 4,30etatik 7etara, azalpenak emango ditu.

Kultur astea urriaren 24tik 28ra

Urriak 24, asteazkena:

17:00etan: Joxe Mari Karrera ipuin kontalaria Liburutegian 8-12 urtetako gazteentzat.

18:30ean: Buruhandiak.

19:00etan: Hitzaldia: "Ariketa fisikoaren onura" Herri Zinema. Hizlaria: Amagoia Muruamendiaraz.

Urriak 25, osteguna:

17:00etan: Hitzaldia Ugarreri Ikastetxean: "Komunikazioa familiaren barruan". Hizlaria: Amaia Vázquez.

17:00etan: Tirolinak, puenting eta eskalada herrikoia Udal Pilotalekuan.

19:00etan: Hitzaldia: "Testamentuak, herentziak. Aholku praktikoak." Herri Zinema. Hizlaria: Monica Larrañaga.

Urriak 26, ostirala:

16:30ean: Pote, Igel eta Toka Txapelketa jubilatuentzat.

19:00etan: Buruhandiak.

23:00etan: Legorretako VII. Mus Txapelketa Bilkoin K.K.E.n.

Urriak 27, larunbata:

18:00etan: "Takolo, Pirritx eta Porrotx" pailazoen Jaialdia Udal Pilotalekuan.

20:30ean: Ozenki Otxotearen musika emanaldia herriko kaleetan zehar.

Urriak 28, igandea:

9:00etan: Burnikurutzetarako erromeria trikitilariak lagun-dua. Baserritarrez jantzita joatea eskatzen da. Iristean hamai-ketakoa eskainiko da.

12:45ean: Anjel Larrañaga eta Joxe Lizaso bertsolarien emanaldi Udaletxeko balkoitik.

13:00etan: Buruhandiak eta Dantzariak.

14:00etan: Anjel Larrañaga eta Joxe Lizaso bertsolarien emanaldia Udaletxeko balkoitik.

Soinketa ikastaroa

Soinketa ikastaroa antolatu du Udalak. Izena emateko azken eguna, urriak 18 da.

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

José Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 42095

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

AURRE ZITA

943 887 221


610 020 041

BEASAIN

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoena

Mariarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84



Herriko trikuharrien seinalizazio berria

Joan den astean amaitu zen herriko zenbait trikuharri seinalizazio berriak jartzeko aurrera eramane den ekimena. Ataungo Udalak, Aranzadi eta Eusko Jaurlaritzaren lan-kidetzaz burutua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Monumentu Megalitikoak seinalizatu eta babesteko egitasmoaren barnean kokatzen da aipatu ekimena.

Proiektu hau aurrera eramateko, Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailak, Aranzadiren bitartez, seinalizazio bereziz hornitzen ditu proiektu honetan sartuta dauden udalak. Horrela, udalerri bakoitzean izendaturik dauden megalito bakoitzean mugarri berriak jartzea lortu da.

Egitasmoaren lehen aldi honetan, Ataun-Burunda in-

Zine denboraldia hasi da

Aurreko zenbaki batean aditzera ematen genizuen, Ataungo Herri Antzokiko zine denboraldiari joan den urriaren 11n eman zitzaion hasiera. Bigarren denboraldi honetan ere, punta-puntako filmak izango ditugu ikusgai. Horren adibide, helduontzako sailean eskaini zen "The Mexican" filma. Aurreko denboraldiko egun eta ordutegi berbera mantenduko da aurtengoan ere, hau da, helduontzako filmak ostegunetik igandera eskainiko dira. Ostegunetan 21:30ean, ostiral eta larunbatean 22:00etan eta igandetan 19:30ean. Haurrek ere izango dute beraientzako moduko filmak ikusteko aukera. Hori igande arratsaldero, 16:30etan izango da.

Gaineratikoa, positiboki baloratu dute joan den urteko denboraldia, bai udalak, baita Herri Antzokiaren ustiapenaren ardura duen Urbieta S.L. konpainiak ere. Hori horrela, kontratua beste urtebetez luzatzeko erabakia hartu dute bi aldeek. Parte hartzeari dagokionean, esan behar da, asteko 57 haur joan zirela zinemara iaz. Helduak, bestalde, 80 iguru.

Eskaintza ikusirik eta horrelako ekimen bat gurea bezalako herri txiki batean aurrera eramateak suposatzen duena ikusirik, iazko kopuruak hobetzea litzateke aurtengo erronka. Gainera, kontutan izan behar dugu herrian horrelako antzoki bat izateak eskaintzen digun abantaila. Herritik ia mugitu beharrik gabe, nobedade diren filmak bertatik bertara ikusteko aukera ez baitu edonork. Beraz, esfortzu bat egin eta guztion artean atera dezagun aurrera gure antzokia eta zinemagintzan egunera egoteko aukera paregabea.

guruko trikuharrietan jarri dira mugarriok, hala nola, Aitxu, Muñaan, Larreluze, Bernoa, Argonitz, Igartza eta Intxuburun.

Gris koloreko kare-harrizko blokeak erabili dira trikuharriak seinalizatzeko. 85 kilotako harri hauek

1000x200x160mm-tako neurrikoak dira. Goiko aldean dagoen altzairu erdoigaitzeko plakan megalito bakoitzaren izen eta ezaugarriak ikus daitezke. Argazkian, horieta-ko bat agertzen zaigu. Bernoako trikuharriaren aurrean.

Agurtzane Bikuña

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

URBITARTE
tolare
sagardotegia



Erretegi modura zabalik

Tel.: 943 18 01 19
Ergoiena Auzoa ATAUN

iBAti-ONDO
ARROZTEGIA



**Koltxoak
Somierak**
Sofak,
altzari mazizoak
haritzekoak,
gerizekoak,
gatzainondoak

multisac
— SYSTEM —

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

Berritsu ludotekak euskaraz jolasteko aukera eskaintzen du

Beasaingo Udalak, Euskara Batzordearen eskutik Berritsu ludoteka jarri zuen martxan. Aisialdian euskararen erabilpena bultzatzeko haur txokoa antolatu zuten. Ludoteka honek helburu nagusi bat du: haurrek astean zehar jolasean euskaraz hitz egiteko erraztasuna har dezaten aukera ematea.

Loinazko San Martin plazako geletan egoten dira arratsaldeko 5etatik 8etara eta adinaren arabera bi txanda daude. 4-8 urte bitartekoak

arratsaldeko 5etatik 6,30etara eta 9-12 urte artekoak berriz, arratsaldeko 6,30etatik 8etara. Lerro hauetatik, batez ere, adin 9-12 urte bitarteko haurrei dei berezia egiten zaie. Larunbatetan ere izaten dute bertara joateko aukera. Bakoitza gainera, nahi duen egunetan eta nahi duen denboran egoten da.

Ikastetxe desberdinetako haurrak joaten dira. Jolasen bidez eta beti ere euskara erabiliz, lagun berriak egiten dituzte. Talde giro jator batean



ongi pasatzea dute helburu.

Abestu, antzerkiak, ipuin kontaketak izaten dira besteak beste egiten dituzten ekin-tzetako batzuk. Txikiak hala ere beren kasa ibiltzen dira jolasean bertan dituzten jostailuekin. Handienei tailerrak gehiago gustatzen zaizkiela adierazi digute Maialen eta Eider bertako arduradunek. Hauentzat beraz, eskulanean tailerrak antolatzen dituzte edo bestela taldeakako jolasak.

Arratsaldetan beraz, euskaraz mintzatuz lagun berriak egin eta ondo pasatu nahi dutenek badute honetarako aukera, matrikulatzeko epea oraindik ere irekita baitago. Izenak emateko ludotekara bertara joan zintezkete arratsaldeko 3etatik 4etara edota deitu ordu berean 943 886546 telefonora. Matrikularen kostua, 2001-2002 ikasturte guztirako, 6.500 pta.koa da.

Nekane Altuna

Udazken kulturala abian da

Gaur emango zaio hasiera aurtengo Udazken Kulturalari. Azaroaren 11 bitarte egitarau zabala prestatu da. Ekitaldien berri zehatza agendan aurkituko duzue. Dena den hemen duzue ospatuko diren ekitaldi batzuk:

Lehiaketak

● **Beasaingo Argazkigintzako X. Rallya.** Argizpi Argazkizale Elkartek eta Beasaingo Udaleko Kultur Batzordeak antolatuta, urriaren 28an jokatu da Argazkigintzako X. Rallya. Lanbidez argazkilariek ez diren zaletu guztiek izango dute parte hartzeko aukera. Bi maila izango dira: 16 urte artekoak eta 16 urtez gorakoak. Izenemateak, egun berean egin beharko dira, goizeko 9etatik 10etara eta arratsaldeko 14etatik 14:30era, Urbietako Arte Plastikoetarako Zentroan. Gaia, argazkilariek egun berean jakingo dute zozketa bidez.

● **Jendaurreko X. margo sariketa.** Arrano Kultur Elkartek Udalaren babesarekin antolaturiko Jendaurreko X margo sariketa hau urriaren 28an ospatuko da Beasaingo kaleetan, baina aurtengo edizioan auzoetara ere zabaldu da gaien aukera. Deialdia erabat irekia da parte hartu nahi duen edonorentzat. Parte-hartzaileak goizeko 9etatik 11etara zigitatu beharko dituzte lanerako erabiliko dituzten euskarriak Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan. Euskarri hauen alderik luzeenak ezingo du metro bat baino gehiago edukitu. Lanak egilearen datuekin batera 13:30etatik 14:30etara aurkeztu beharko dira Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan. Ondoren Arrano Elkartearen parte-hartzaileek bazkaria izango dute.

● **II. Argazki Lehiaketa Peña Beloki Saria.** Peña Belokik eta Argizpi Argazkizale Elkartek, Beasaingo Udalaren babesarekin II. Argazki Lehiaketa antolatu dute, argazki eta txirrindularitza zaletu guztiei zuzendurik. Gaia Txirrindularitza izango da, zurri-beltzean eta koloreetan hiru argazki aurkeztu beharko dira egile bakoitzeko. Teknika eta aurkezteko moduez askatasun osoa dago. Gehienez ere 30 X 45 cm.ko kartoiez sendotuta. Ez da argazki digitalik onartuko. Lanak jasotzeko azken eguna urriaren 27a izango da. Irabazleari 25.000 pezeta eta garaikurra emango zaio, bigarren saria eramaten duenari 10.000 pezeta eta garaikurra eta hirugarren sailkatzen denak 5.000 pezeta eta garaikurra eramango ditu. Sari berezia emango zaio Joseba Beloki txirrindulariari ateratako argazki onenari.

Haurrentzako ekitaldiak

● **'Igartzako' haurrentzako parkea.** Urriak 20 eta 27an. Goizeko 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 16:00etatik 18:30era Igartzako parkean. Euria eginez gero, Loinazko San Martin plazan.

● **Kukubiltxo taldea.** Urriak 21. 'Kukubeltz' antzezlanaren eskainiko du Loinazko San Martin plazan 18:00etan.

● **'EZA Kanpaina'.** Urriak 31. Ikastetxeentzako 'Martina kementsua' euskarazko filmaren proiektzio emanaldia Usurbe Antzokian Tinkoren eskutik.

● **Haurrentzako tailerrak.** Azaroak 4. Txilibutxof taldeak antolatuta, tailer desberdinak egingo dira Joan Iturralde Plazan 17:30etik aurrera.

Telleri-berriko ardoa

Errioxan bakarrik ez dela ardoa egiten eta gure herriko Telleri-berri etxean mama goxoa egiten ari da urte sasoi

honetan Joakin Rodriguez. Aurtengo urtea ez da oso oparoa ere izan uzta aldetik, udaberriko izotz batek gogor kal-



Santu Guztietako eliz ospakizunak

Santu Guztien eguneko ospakizunak honako hauek izango dira:

Eguerdiko 12,30etan meza eta arratsaldeko 4etan elizan izango da elizkizuna eta ondoren, kanposantuan.

tetu baitzuen. Ardoa egiteaz gain, etxe aurrean mahatsa txikitzeke tolarera ere jarri du, txukun-txukun berritu ondo-

ren. Argazkian ikusten da mahatsa eta tolarera.

Iñaki Ugalde



Festaondoan, ikastaroak aukeran

Bukatu berri dira aurtengo Santa Fe festak, eta guztiok ere sekulako biharamuna izanagatik, ikastaroen ikasturte berria jarri asmo du abian Kultura batzordeak, eta honako proposamenak luzatzen ditu.

● **Margoketa ikastaroa:** asteazkenetan arratsaldeko 7etatik 9etara. Matrikulazioa zehaztuko da.

● **Egur taila ikastaroa:** ostegunetan arratsaldeko 7etatik 9etara. Matrikulazioa zehaztuko da.

● **Eskulanak, argazkigintza, lore lehorrak, txalaparta, gozogintza, sukaldaritza, serigrafia...** dira proposatzen diren **beste zenbait ikastaro**, baina hauen ordutegia, egutegia eta matrikula finkatu gabe daude oraindik taldeak osa-

Bi langile inguruak garbitzeko

Dakizuenek, Zaldibiako Udalak lanpostuak sortu eta sustatzeko asmoz, INEMek eskaintzen dituen zenbait aukerataz baliatzen da herri mailako lanpostuak sortzeko. Egin ahalak egin arren, aurtengoan lanaldi erdirako bi langileren kostuak bakarrik ordainduko ditu INEMek. Herriko inguruak garbitzeko izango dira lau hilabeterako kontratazioa izango duten bi lanpostuok.

tzeko aukera dagoen ala ez jakin arte.

Hemen aipatu diren ikastaroetatik kanpo besteren bat interesatzen gero, Kultur etxera jo eta deialdia egiteko aukera egongo litzateke. Ikastaro hauetan parte hartu nahi

izanez gero, Kultur Etxean eman behar da izena urriaren 30a baino lehen edota 943.16.03.38 telefono zenbakira deituta.

Iñaki Gurrutxaga
Saroi Jauregi

Lau talde ari dira futboleant

Errejonalak lider 4. jardunaldian

1250 biztanle inguru dituen Segurako futbol taldeek hasia dute 2001/02 denboraldia. Errejonalak entrenatzen Iñaki Albisuk jarraitzen du, jubenilekin Mikel Areizaga ari da, kadeteekin Jabi Eizmendi eta infantilekin Juan Carlos García.

13 jokalaririk

Errejonalak: Xabier Alustiza, Imanol Intxausti, Xanet Garmendia, Ibai Telleria, Xiker Rokandio eta Oier Gereñu.

Jubenilak: Enetz Olano.

Kadeteak: Anaitz Goia eta Urtzi Intxausti.

Infantilak: Aitor Arostegi, Javi Rodriguez, Borja Gereñu eta Endika Mantecon.

Zuzendaritza

Herrian futbola funtzionarazi eta euren futbolariaren eta herriarren arteko lotura nahiz lan giro ona gauzatzeaz, Joxe Mari Izagirre (zuzendaria), Iñaki Albisu, Mikel Areizaga, Gurutx Aldanondo, Aitor Ariztimuño, Diego Aldanondo, Eduardo Aldanondo, Imanol Aran eta Xabier Alustiza arduratzen dira. Kadete eta infantilen taldeez, berriz, zegamarrak.

125 bazkide inguru

Hau guztia beharrezkoena bada, laguntza ekonomikoa ere ezinbestekoa da. Momentuz, 125 herritar inguruk emana diote babesa. Hau izan ohi da diru sarrera nagusia. Honetaz gain, partiduetako sarrerak, futbol zelaiko taberna, Sanjoa-netako taberna, Errealaren laguntza eta Gabonetan egiten duten makrofestatik ateratzen dute diru gehiago. Udalak instalazioen hobekuntza eta bertako gastuetan aportatzen du eta Zegamako Udalak kadete eta jubenilei laguntzen die.



Errejonaleko taldea aurreko zapatuan, Kilimoni 7 eta 0 irabazi ondoren.

2,5 milioi inguruko aurrekontua du futbol zuzendaritzak 2001/02 denboraldirako. Gasturik handienak, federakuntzako fitxetan, arbitraietan, bidaletan eta materialetan izaten dira.

Zuzendaritzakoek iragarri dutenez aurtengo herri afaria eta ondorengo makro festa abenduaren 22an ospatuko dira.

Asteburuko emaitzak

Errejonalak: Segura 7-0 Kilimoni. **Jubenilak:** Billabona 2-0 Segura. **Kadeteak:** Intxurre 2-2 Aizkorri. **Infantilak:** Lagun Onak 1-1 Aizkorri.

Asteburuan etxean

Zapatuan, (11:30), Aizkorri-Tolosa (infantilak). Zapatuan, (16:30), Segura-Antzuola (jubenilak).

Joseba Telleria



Euxebio Athleticoko kamixetarekin eta Aitor Segurakoarekin txutatzen hasi aurretik.

Txutatzaileen arteko apustua

Pasa den urriaren 13an errejonalen futbol partiduen ondoren ikusi ahal izan zen apustuak egundoko ikusmina sortu zuen. Norgiagiagoko Euxebio Alustiza eta Aitor Gabilondoren artekoa izan zen. Euxebiok areaz kanpotik ezkerrez eta Aitorrek penalti puntutik eskuinez, 10na jaurtiketetan zeinek elkarri gol gehiago sartu. Jokoa afari bikaina. Irabazlea Aitor izan zen 7 gol sartuta. Euxebiok 2 sartu zituen.

Labur-labur

● **Xabier Olanori domina.** Bihar, urriak 20, Goierriko odol emailei dominak banatuko zaizkie Lierniko ermittan. Bertan, 25 aldiz odola eman izanagatik Xabier Olano herritarri zilarrezko domina emango diote. Ondoren afaria dute Liernin bertan.

● **Kanposantuko txukunketaren 1. fasea,** urriaren hasieran hasi zen. Sarrerako atea zabaldu eta zoruan hormigoia botatzeaz gain, hilerriko sarrera gunean 60 nitxo eta 8 hilku-txentzako gunea egokitu dute.

● **Jatorrizko lekua Goiko portala izan bazuten ere,** urteetan errebote gainean egondako hiru **armarri zaharberritu** eta berreskuratu dituzte Aranzadikoek. Hauen inguruko historiaren azalpen idatzia ari dira gauzatzen eta urte amaierarako ikusgai izango dira udaletxepean.

● Herrian **eskupeleta eta kirola suspertu eta ludoteka martxan** jartzeko EINK Eñaut Telleria kontratatatu du jornada erdiz urte erdi ingururako.

● Herriko **etxebizitza eta lokalen zentsua** egiteko Elisabet Izagirre eta Leire Tejados

kontratu ditu EINK. Ikastarotxo egin ondoren etxez etxe bisitekin hasiko dira.

● Udalak Zurbano kaleko 5an duen **garajea enkante** bidez saltzea erabaki du. Proposamenak, kartazal itxian, azaroaren 6ra arte onartuko dira. Informazio gehiago Udaletxean.

● Bolalekuan dauden **birziklaketarako edukinontziak ekialdeko zerkaldera** pasako dituzte, karga eta deskarga arazoak sortzen direlako gune horretan.

● **Etxeko traste zaharrak ateratzeko egunak** zehaztu ditu Sasieta Mankomunitateak (urriaren 24a, azaroaren 14a eta 18a eta abenduaren 12a eta 26a). Trasteak zein puntutan utzi jakiteko, egun horien bezperan 943161590 telefono zenbakira deitu behar da.

● **Kirol eskolarra.** Asteburu honetan hasiko dute denboraldia. Bihar, urriak 20, saskibaloia pilotaleku ondoan. Mendi irteera: finalistaren eguna urriaren 28an, Donostian (Ulía). Autobusa 8:00etan plazan.

● **Nafarroa Oinez.** Elorri K.E.k antolatutako autobusa, 21ean 8:30ean, irtengo da plazatik.



Gasa urria amaitzerako

Herrian gasa zabaltzeko lanak egiten ari den enpresak udalari jakinarazi dionez, hilabetea bukatzerako gasa etxeetan izango da. Lanak udarako bukatzea espero zen arren, hiru hilabetezko atzerapenarekin ari dira azkeneko ikutuak ematen.

Gas bide berriak Kale Nagusi guztiak zeharkatzen du. Bide nagusi horretatik, orain arte gasik ez zuten auzo eta etxeetara beste bide batzuk eratu dituzte.

Gas, Benta Txikin dau-

den bi biltegietatik zabalduko da. Hasieran, orain gasa jarri duten etxebizitzetara baina ez dute eramango. Herrian banatuta dauden biltegi txikiekin zer egin aurrerago erabakiko da. 10 urtean behin ateratzen dituzte biltegi horiek eta bakoitzari horretarako unea iristen zaionean erabakiko da hura berriro ere erabili edota, kentzea. Kenduz gero, etxe multzo hori gas bidera lotuko da.

Xabier Urteaga

Zigor auzoaren urbanizazioa hasi da

Aste honetan hasi dira Zigor auzoa urbanizatzeko lanak. Udalak 60 milioi pezetako inbertsioa egingo du eta sei hilabeteren buruan urbanizazioa bukatuta egotea espero dute.

Udaberria bitartean egingo diren lanetan, auzoan zaharkituta geratu diren azpiegiturak, (hodiak eta bestelako instalazioak) berrituko dira.

Pilarreneak urtebete

Pilarreneako Gizarte Zentroaren lehendabiziko urtemuga ospatzeko, Jubilatuen Elkarteak larunbat honetarako, urriak 20, ondoko ekitaldiak antolatu ditu: meza eta luntxa eta ondoren, Ainhoa Munduate eta Olatz Nograro trikitilarekin dantzaldia.



Jubilatuen eguna

220 jubilatutako bildu ziren aurreko igandean beraien eguna ospatzeko Olaberriko Arrieta jatetxean egindako bazkarian. Bazkal ondoan, herriko edadetuenei omenaldia egin zitzaion. Migel Iparragirri, herriko edadetuena, (95 urte) eta Ageda del Castillo, bazkarian zegoen emakume edadetuena (90 urte), eman zitzaion oroigarria. Bazkarira joaterik izan ez zuen arren, Joxepa Telleriari (93 urte) etxera eramane zioten oroigarria.

Euskara Ikastaroa

Udalak, Aita Iparragirre Herri Eskolak eta Guraso Elkarteak euskara ikastaroa antolatu dute ikasturte honetarako. Matrikula doan izango da, eta izena ematen dutenen artean erabakiko da klaseak zein egun eta ordutan eman. Izena emateko epea, urriaren 26an, ostirala bukatuko da.

Haurrentzako emanaldiak

Urriaren 26an, arratsaldeko 5,30etan, Kixka txotxongilo taldeak "Bikote bihurria" lana eskainiko du Kultur Etxean. Urriaren 31n arratsaldeko 5,30etan, bestalde, Hiruki taldearen "Non dago maleta?" antzezlanak ikusteko aukera izango da.

Iparra eta Eduardori omenaldia, Kimuren eskutik

Urriak 25, asteazkena:

20:00etan: Alicia Sturtze historialariaren hitzaldia Pilar enean. New Yorkeko gertaerek munduan zehar eta Euskal Herrian izan ditzaketan ondorioak aztertuko ditu.

Urriak 27, larunbata:

16:00etan: Mus Kimun. Txapelketa azkarra.

Urriak 28, igandea:

10:00etan plazatik irtenda, Atxurbi gudari mendira irteera. Omenaldia eskainiko zaie Iparra eta Eduardori.

Urriak 31, asteazkena:

22:30ean: Guraso elkarteak, 'Karidadeko Benta' bertso ikuskizuna. Jon Maia eta bere taldeak bertso zahar eta berriak kantatuko dituzte musikaz lagundurik.

Agustin Galabide: "Goierrik izugarrizko turismo potentziala dauka, baina kontzientzia hartzea falta zaigu"

Urriaren 26an inaugurutuko da Beko-errotako aterpetxea

Azken urteotan berrikuntza galanta ezagutu dugu Beko-errotan edo Gabilondo base-riaren inguruan; ia galzorian zegoen etxe inguruari berebiziko argitasuna eta bizia dario orain. Aterpetxea izango da hemendik aurrera garai batean errota izandakoa, eta proiektu honen eragile den Agustin Galabide ormaiztegiarrarengana jo dugu xehetasun gehiagoren bila, lehendik ere eskualdeko ostalaritzan eta turismoan esperientzia itzela duen Itxuneko Agustienengana.

- Zer moduzko urtea izan da aurtengoa ostalaritzarentzat?

- Aurten nahiko lasai ibili da. Hala ere gu oso ondo moldatu gara, industriak indar handia baitauka hemen, eta ne-
guan langileriarekin ostatu negozioa dugunok eskaintza bete dugu. Uda partean, ber-
riz, beti izaten da mugimen-
dua, ikasle jendeak, gazteak,
motxilero gisakoak, bost iza-
rreko hotelerak ez baino hone-
lako lekuetara duelako joera.
Oraindik ezagutzen ez gaituz-
ten arren udako bi-hiru hila-
bete horietan beteta egongo
gara, behin Diputazioaren
aterpetxeen sarean sartutako-
an. "Turismo ekintzetxea" de-
lakoaren bidez gure kokagu-
nea ezagutaraziko da, eta ho-
rrek bisitari asko erakarriko
ditu.

- Goierriko turismoa indartzeko
nahiko lan egin al da ala bada zer
eginik oraindik?

- Oso gutxi dago egin beha-

Aterpetxearen preskuntzak

- Hiru gela, bakoitza 14na lagunentzat.
- Hiru gela, launa ohekoak. Izarak alokatzeko aukera.
- Bainugelak gela guztietan. Dutzak eta komunak aparteko eraikin batean.
- Egongela telebistarekin.
- Sukaldea, norberak gosariak eta otorduak ipintzeko aukera-
rekin.
- Aretoa handia beheko suarekin, hitzaldi edo ikastaroetarako
eserleku eta materialarekin. Barnetegi bezala erabiltzeko apro-
posa.
- Berogailu zentrala.
- Aisialdirako txabola: jolasak, txirrinduak,...
- Errota: errotarriak, turbinak, aldaparoa, presa, zubiak...
- Errekaren alboan pasealekua, zelai zabal eta lauak jokoak
egiteko.

rra, behar dena guztia koordi-
natuko duen organismo bat
da. Gauza asko daude ikuste-
ko, interesgune mordoa, bai-
na oso sakabanatuta: Zerain-
go fundazioak bere ingurua
bultzatzen du, Legazpiko
Lenbur-ek berea, Beasainen
Igartzia, Ordiziako kasko his-
torikoa, Segurako herrigunea,
Ataungo Lareo-Enirio ingu-
rua... bakoitza bere aldetik
dabil. Koordinazioa falta da,
norbera geure aldetik joanda
oso zail daukagu. Goierrik
potentzial turistiko handia
dauka, baina Goierrik berak
ez daki zer duen. Ikusteko zer
daukagu, igande bat pasatze-
ko nora joan, zer egin... jen-
deak ez du ezagutzen zer lan
egin den, Beasain-Ordizia eta
kito. Nolako potentziala da-
goen kontzientzia hartzea fal-
ta zaigu, daukagunean sinis-
tea.

- Beko-errotan aterpetxeak zer
eskaintzen du?

- Neguan turismo gutxi izaten

denez eskolei zuzendutako
egonaldiak prestatu ditugu, bi
eguneko programa dutenak.
Eskoletako konbibiendi irtee-
rak egiteko, harremanak sen-
dotzeko-eta izaten direnak
egiteko pentsatuta daude. As-
telehen-astearteetan talde bat
egongo litzateke, asteazkena
garbiketarako libre eta oste-
gun-ostiraletan beste bat. As-
teburuetan koadrilentzat, fa-
milientzat edo bestelako tal-
deentzat ere balio lezake. In-
guruko herrietako interesgu-
neak biltzen ditu pakete ho-
nek, bisitak, mendi irteerak,
Goierri guztia ezagutzeko.
Nahi izanez gero zazpi egu-
neko paketea ere badaukagu
programatuta.

- Zein baliabide ditu aterpetxe-
ak, beste erakunderen batekin
hartuemanik ba al du?

- Ormaiztegiko Zumalakarre-
gi Museoaren bidez egingo
da eskoletara programen za-
baltze lana, eta bera arduratu-
ko da egonaldia antolatzeaz,

bai taldeak bilatu, programa-
zio paketeak eskaini eta lotu-
ra guztiak egiteaz, horretara-
ko azpiegitura egokia baitu.
Gainera Aldundiaren aterpe-
txeen gidan ere sartu gara, eta
bide horretatik ere badugu
harremanik.

- Aipatu dituzun bisita-pakete horietan zer sartzen da zehazki?

- Aterpetxe bakoitzak ingu-
ruan dituen baliabideak in-
dardu eta ezagutarazi behar
ditu. Bertatik hasita, Gabiria-
ko kaskoa ezagutu, Baztarri-
kan gaztagintzan aritu, Palan-
kako zabortegean birziklope-
na jorratu, gero Ezkion zabal-
du berri den Igartu-beiti mu-
seoan ikusi, oso gertu dauden
Ormaiztegiko tren-zubia eta
museoa, lehen aipatutako
Beasaingo Igartzia, Ordizia,
Segura, Legazpiko Lenbur
eta Burdinaren bidea Aizpea
eta Zerainen barrena... Uda-
rako ere kostaldea berehala
daukagu, edo Bilboko Gug-
enheim, edo Iruñea... Bai
Goierriko eskualdean, bai
Euskal Herrian erdi-erdian
gaudenez aukera asko daude
bide gutxira. Pentsa, amerika-
rrak urtero izaten dira Itxunen
ostatu hartuta handik San
Ferminetara joateko!

Honenbestez, goroldioak
janda zeuden Beko-errotako
errotarriak martxan jartze-
ar daude berriro. Antzina Eztan-
da erreka urek mugiarazi-
tako errotari eman diezaiola
bisitari-uholdeak urte askoan
indarra.

Aimar Maiz

Igandean jatorrizko euskal animala espezien II. erakusketa

Datorren igandean, urriak 21, ospatuko da jatorrizko euskal animala espezien II. erakusketa. Ormaiztegiko zelai eta Zubipe kiroldegi inguruan Euskal Herriko berezko espezieetako abereak bertatik ikusteko aukera izango da. Bertan aurkeztuko diren abere horietatik asko bertako arrazak izateaz gain, desagertzeko arriskuan aurkitzen direla da azpimarragarria. Azken urte hauetan abere horien egoeraz oharturik hainbat elkarte, gizabana-koen etenik gabeko lanari esker, abere horiek babestu eta desagertu ez daitezen ahalegin berezia egiten ari dira.

Abere horiek kontserbatu eta bultzatzeak duen garrantziaz oharturik, Gipuzkoako lurralde historikoan Euskal Herriko berezko espezien horrelako erakusketa bat antolatzea oso interesgarri eta beharrezkotzat jo zen berez-



ko espezien hainbat elkarte, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentu eta Ormaiztegiko Udalaren aldetik. Aipatu erakunde eta elkar-teen eskutik iritsi izan da eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Ormaiztegiko Udalak beraiekin bat eginik bitartekaritza lana burutu izan dute.

Aurtengo erakusketan betizu, pirenaika, terreña, Euskal Herriko mendiko zaldia, Burgete, Jaca Navarra, sasiardia, euskal oiloa, euskal erlea, bertako ibai karramarroa, pottoka, euskal oiloa,

ardi latxa mutur gorria, ardi latxa mutur beltza, karrantzako ardiak eta beste hainbat abere ikusteko aukera izango da.

Izendatu diren abereez gain bertako espezieak diren gainontzeko elkar-teen eskutik iritsi izan da eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Ormaiztegiko Udalak beraiekin bat eginik bitartekaritza lana burutu izan dute. Aurtengo erakusketan betizu, pirenaika, terreña, Euskal Herriko mendiko zaldia, Burgete, Jaca Navarra, sasiardia, euskal oiloa, euskal erlea, bertako ibai karramarroa, pottoka, euskal oiloa,

Aitziber Murua

Egitaraua

10:00etan: Erakusketaren irekitze ofiziala.

10:00etatik 14:30era: Erakusketarako egokitutako gune berezietan abere espezie desberdinez osaturiko erakusketa izango da ikusgai. Gune bakoitzean megafoniaren bitartez abereen aurkezpena egingo da.

11:00etan: Betizu, terreña eta pirenaiken aurkezpena.

11:30ean: Euskal erleen, ardi eta sasiardien aurkezpena.

12:00etan: Pottoken aurkezpena, lehiaketa morfologia eta jarrailan sari-banaketa.

12:30ean: Bezperatik hasi eta goizean zehar bertan erreko den 200 kilo inguruko betizu pintxoak dastatzeko aukera.

13:00etan: Hipika erakustaldia.

13:30ean: Betizu txikien sokamuturra.

14:30ean: Partaideentzat bazkaria.

Goizean zehar gazta, eztia, taloa eta sagardoa dastatzeko aukera izango da horretarako prestaturiko guneetan. Trikitilariak alaituriko giroa izango da.



8 gaztek hartu dute sendotza

8 gaztek hartu zuten sendotzako sakramentua beraiek erabakitako bideari jarraituz eta buruturiko heziketa baten helmuga bezala. Aldarean izan ziren gazteak Iñigo Betegi, Imanol Barenetxea, Eneko Maiz, Eneko Galarraga, Erik Maiora, Iker Garmendia, Imanol Lasa eta Jesus Mari Zufiaurre izan ziren. Elizkizuna Donostiako Gotzaitegiko ordezkariak zuzendua izan zen eta aipatu gazteekin batera, bertan herriko apaiz Klemente Zelaia, begirale, senitarteko eta herritarrak izan ziren.



Bertso eskolak anagrama berria *Antton Mendizabalen lana da*

X. Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketako sari banaketarekin batera anagrama berriaren aurkezpena egin zuen Goierriko Bertso Eskolak joaneko irailean. Antton Mendizabal oreretar eskultorearekin harremanetan jarri, Bertso Eskolari buruzko informazioa eman eta gainontzekoa Anttonen esku.

"Anagrama egiterako orduan kontuan hartu nituen Goierri, honekin batera Txindoki eta nola ez, bertsolaritzarekin lotura zuzena duen Lazkao Txiki zena. Beraz, hor agertzen dira Joxemiel Iztueta bera, perfílez Txindokiri begira kantuan", eskultore berak adierazi zuen bezala. Honez gain materiala ere garrantzitsua da eta Goierriren ezaugarrietariko bat den arbela erabili du egu-

rrarekin batera bere lana egiterako orduan.

Hasteko argazkian ageri den oroigarria bezalako 3 egin ditu Antton Mendizabalek, Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketan maila desberdinetan irabazleak izan diren bertso idazleei eman zitzaizkaien hain zuzen.

Ikastaroak AEK-n

Urriaren 2an hasi zituzten klaseak Goiztiri AEK euskaltegian. Aurten iazko ikasle kopurua mantentzea lortu dute eta are gehiago, herriko ikastetxeetan eskaintza zabaltzea lortu eta irakasleei sakontze ikastaroak ematen ari dira. Guztira, beraz, 100dik gora ikasle. Goizean EGA eta alfabetatze taldeak ari dira astelehenetik ostegunera Santa Ana ikastetxean



Egokitzapenak kirol-instalazioetan

Beti Alai pilotalekua, Altamira Stadiuma, Majori Kiroldegia eta anexoak egokitzapenak jasango dituzte datozen hilabeteetan. Hasiak dituzte lanak Beti Alai Pilotalekuan. Helburua dena estaltzea izango da. 1981. urtez geroztik itxi bazen ere sarreretako bat eta aldamera irekita geratu ziren eta honek arazoak sortu ditu pilotalekua behar bezala erabiltzerako orduan. Hau dela eta, kristalez estaliko dituzte aipatu alboa eta sarrera. Honekin batera alde bateko sarrera handituko dute eta taberna itxi.

Bestalde, Altamira Stadium-ean bi aldagela eraberritzen ari dira jada, ur beroa gordetzeko pisu bat eraikitzearekin batera. Anexoa ere desagertzeko zorian da eta honen ordeztarke artifizialezko futbol zelai bat eraiki nahi da.

Azkenik, Majori Kiroldegia txiki geratzen ari da berau erabili nahi duten jende kopurua gero eta handiagoa baita. Gimnasioan lekuren bat topatzea zaila da eguneko ordu batzuetan eta gauza bera gertatzen da fitness gelan. Hau dela eta handitze lanetan ari dira eskaera guztiei erantzun asmoz.

Aparkalekua Santa Anan

Ordizian autoak aparkatzeko gero eta arazo handiagoak daukela kontuan hartuta, Udalak Santa Ana ikastetxearen patioa aparkaleku egitea erabaki du. Sarrera Iturtxo Kaletik gora izango du eta 3en bat autorentzat kabida izango da bertan.

Karpa Garagartza plazan

Enparantza Nagusiko lanak hasiak diren honetan, Garagartza Plazara bideratu dute udaletxeok asteazkeneko peria. Bertan karpa erraldoi bat jarri dute estalpe gisa eta bertan ipiniko dira asteazkeneko Enparantza Nagusian egoten diren baserritarrak. Lanek bi urte gutxienez iraungo dutela kontuan hartuta Garagartza Plazako bizilagunak kexu ziren ez baita oso eroso balkoira atera eta egunero karpa ikusi behar hori.

bertan. Eguerdian jakintza Ikastolan talde bat, beste bi Urdaneta ikastetxean eta beste bat Santa Anan ari da. Azkenik, iluntzean bi talde ari dira Santa Anan. Hauek gain, Urdanetan irakasle talde bat, beste bi Oianguren eta beste bat Jakintzan. AEK bertatik gogorarazi nahi di-

zue oraindik hauetako talderen batean sartu nahiko bazenu aukera baduzula eta 943-889174 telefono zenbakira deitu edota Santa Ana ikastetxera bertara joan besterik ez duzula.

Aitor Calvillo

Anbulategi berria martxan da

Azken urteetan baldintza eskasetan egon dira lanean Lazkaoko sendagileak, baina hemendik aurrera, dagoeneko eraikin egokia izango dugu medikuari bixita egin behar diogun lazkaotarrok. Joan den urriaren 11n ospatu zen Lazkaoko anbulategi berriaren inaugurazio ekitaldia eta bertan, osasun zentruko ordezkariak, Lazkaoko Udaletxeko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak izan ziren; Gabriel Inclan Osasun sailburua edo Osakidetzako burua, Josu Garai besteak beste.

168 milioiko kostua izan duen eraikina aurrerapen uga-

riz dago hornituta bertara joango diren gaixoei lana errazteko asmoz. Horrela elbarrientzako aldapak, igogailuak edo liburutugi eta bilera aretoa ere eraiki dituzte bertan herritarrentzat erosoago gerta dadin. Baina lazkaotarrarekin batera, Ataun eta Olaberriko biztanleek ere erabilko dute anbulategi berri hau, guztira urteko 12.055 bixita betetzeko aurrikusia baitago.

Urriaren 16, astelehena, Areson kokatuta zegoen anbulategitik anbulategi berrira gauzak eramateko aprobeztatu zuten bertako langileek, eta urriaren 17, asteartea, izan



Txistu matrikulazioa

Urriaren 29an bukatzen da txistuan matrikulatu nahi dutenentzat epea. 11 urte (eginda edo egiteko) edo gehiago dutenentzat da aukera, astelehenetan 19:30ean Hirigoieneko haur eskola izandako lokalean. Interesatuak orain dute garaia, talde berria osatu behar baita. Behin taldea osatzen denean hurrengo noiz osatuko den ez da jakiten, behararen arabera, urtero ez baita osatzen.

zen herriko plazan kokatuta dagoen anbulategi berrian kontsultak erantzun zituzten lehen eguna.

Anbulategia aurrerapen ugariz dago hornituta bertara joango diren gaixoen erosotasunerako.

Oihana Sarasola

III. gazte festako egitaraua

Datorren urriaren 27an ospatuko da Lazkaoko III. Gazte Festa, eta horretarako dagoeneko lanean ari dira herriko hainbat gazte egun horretan izango den egitaraua prestatzen. Hona hemen egun horretako egitaraua:

10:00etan: Txarangak lagunduta, patata tortila txapelketa, irabazlearentzat 5.000 pezetako diru saria egongo delarik Osagaiak gazte taldearen esku. Kanpin gasa norberaren esku.. Izen-ematea tabernetan.

10:30ean: Jokoak: pepino jokua, toka, koskola apostua eta bira eroa. Joku hauetan parte hartzeko sei partaideko taldeak egingo dira eta garaileek txapela eta 15.000 pezetako diru saria eskuratuko dute; bigarren geratzen direnek 10.000koa.

12:30ean: Poteo herrikoia bertsolariekin.

14:30ean: Bazkari herrikoia plazan. Txartelak Lazkaoko tabernetan daude salgai 2.000 pezetan.

Ondoren, abesti herrikoien letrekin paper batzuk banatuko dira, gazteak abestera anima daitezen. Bazkalostea trikitilari eta bertsolariek alaituko dute.

18:00etan: Hortzmuga taldearekin kale animazioa.

20:00etatik 00:00etara: Kontzertuak. Astrozombies, Nuevo Catecismo Católico eta Obligaciones taldeekin.

00:00etan: Drindotsekin dantzaldia.

01:00etan: Akelarrea herriko enparantzaren atzeko aparkalekuan.

Ondoren, Drindots musika taldeak jarraituko du.



Dantza, kirol edo dekorazio ikastaroak

2001-2002 denboraldia hastearekin batera hainbat ikastaro eta kirol ekin-tza antolatu dira. Joxe Migel Barandiaran kiroldegian ige-

riketa, aerobika, karatea, edo aurtan estraineko aldiz, ballet ikastaroa antolatu dituzte eta ia 200 pertsona joaten dira bertara. Honekin batera, masaia eta muskulazio zerbitzua ere eskaintzen du Lazkaoko kiroldegia.

Udalak ere ikastaro ezberdinak jarri ditu martxan. **Egurtaila, altzarien zaharberritzea eta etxe barruko apainketa eta diseinua** dira orain hasiberri dituzten ikastaroak eta guztira 35 pertsona inguruk eman dute izena bertan.

Maizpide Euskaltegian **dantza ikastaroa** antolatu dute urri eta azarorako. Helburua jendeari arin arin eta fandangoa erakustea da.

Azaroan **Mus txapelketa** antolatzeke asmoa du Maizpidek. Mus lehiaketa honekin, euskaltegiko ikasleen artean euskararen erabilera bultzatu nahi dute, eta horretarako deialdia luzatu diete herritar guztiei. Antolatzaileek helburua euskaldun zahar eta euskaldun berrien arteko bikoteak egin eta joan ere euskaraz hitz egitea da. Beraz, herritarren batek mus txapelketa honetan parte hartu nahi izan eta euskara ikasten ari den norbaitekin bikotea osatu nahi badu, Maizpide euskaltegian eman beharko du bere izena.

ZINEA

GOIENIZ

GOIENIZ:

Urriak 25, 'El polvorin'
eta 'Campeones'
laburmetraia, 21:00etan,
Usurbe Antzokian.

BEASAIN:

'Planeta de los simios'.
Ostirala 19: 22:15
Larunbata 20: 22:15
Igandea 21: 17:00 - 19:30 -
22:15
Astelehena 22: 19:30 -
22:15.

ORDIZIA:

'Visionarios'.
Ostirala 19: 22:15
Larunbata 20: 22:15
Igandea 21: 19:30 - 22:15
Astelehena 22: 19:30
'Spy kids'.
Larunbata 20: 19:30
Igandea 21: 16:45



'El polvorin'

Goran Paskaljevic
(*Fra, Gre, Mazed, Yug,*
Tur, 1998)

Belgraden gaude. Gaua da,
gau arrunta eta jende arrunta,
itxuraz arruntak diren gauzak
egiten. Baina filmak aurrera
egin ahala, eguneroko ekin-
tza xume horiek berotuz doa-
zela konturatuko gara, indar-
keria, matxismo eta ezin
ulertze giroak sututa, leher-
tzeko zorian dagoen arraza
anitzeko hiri honetan. Izan
ere, gertaera ulertezinak eta
pertsonaia bortitzak elkar
gurutzatzen dira, tragikome-
dia eta absurduaren mugan,
edozein unetan sor daitekeen
bortizkeria hutsaren absur-
dua azaleratzeko.

musika

BEASAIN:

Urriak 20, Mac Jeara's tal-
dearen kontzertua, 19:00etan,
Loinazko San Martin plazan.

Urriak 29, Suediako
'Lunds vokalensemble' abes-
batzaren kontzertua, Andre
Mari Zeruratuaren parroki-
an, 20:30ean.

Azaroak 1, Tolosako banda-
ren kontzertua, Loinazko San
Martin plazan.

Azaroak 2, Mikel Urdanga-
rin, Usurbe antzokian,
22:15ean. Sarrera: 800 peze-
ta.

Azaroak 3, Txistu-kontzer-
tua, Goierriko txistulariekin,
Loinazko San Martin plazan,
12:00etan.

Azaroak 3, Alboka taldea-
ren musika-emanaldia, Loi-
nazko San Martin plazan,
19:00etan.

LEGORRETA:

Urriak 27, Ozenki Otxo-
tea, 20:30ean, herriko kalee-
tan.

ORDIZIA:

Urriak 27, Irungo Hiria
bandaren kontzertua,
20:00etan, Plaza Nagusian.

pailazoak

LEGORRETA:

Urriak 27, Takolo, Pirritx
eta Porrotx, 18:00etan, Udal
Pilotalekuan.

antzerkia

BEASAIN:

Urriak 21, Kukubiltxo tal-
dearen 'Kukubel' antzezla-
na, Loinazko San Martin pla-
zan, 18:00etan.

Urriak 23, Tanttaka taldea-
ren 'El florido pensil', Usur-
be antzokian, 21:00etan. Sa-
rrera: 800 pezeta.

bertsoak

BEASAIN:

Urriak 26, Bertso saioa:
'Starwars' filma oinarri har-
tuta. Aitor Sarriegi, Iñaki
Apalategi, Ekaitz Goikoe-
txea eta Iker Zubeldia. Usur-
be antzokian, 22:30ean. Sa-
rrera: 500 pezeta.

LEGORRETA:

Urriak 28, Anjel Larraña-
ga eta Joxe Lizaso, Udaletxe-
ko balkoitik, 12:45ean eta
14:00etan.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Arriola
(Plaza Nagusia, Ordizia). 943 880628.

Urriak 20-21: Azpilikueta
(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.

Urriak 27-28: Lurnaga
(Kale Nagusia 4, - Ordizia). 943 881828.

LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27

☎ 943 88 20 07

BEASAIN



RUGAZTIBI

AHOLKULARITZA

Domingo Unanue plaza, 2 behe **ORDIZIA**
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58

**9:00etatik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA**

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble agentzia

hitzaldiak

BEASAIN:

Urriak 30, Gizakia gizarte-ordena berriaren aurrean, Xabier Odriozolaren eskutik. Udaletxeko Batzar aretoan, 18:30ean.

Azaroak 5, Elikadurari buruzko hitzaldia, Amaia Perales dietistaren eskutik, Udaletxeko Batzar aretoan, 19:30ean.

LEGORRETA:

Urriak 24, 'Ariketa fisikoaren onura', Amagoia Muruamendirazen eskutik, 19:00etan, Herri Zineman.

Urriak 25, 'Komunikazioa familiaren barruan', Amaia Vazquezen eskutik, 17:00etan, Herri Zineman.

Urriak 25, 'Testamentuak, herentziak. Aholku praktikoak', Monica Larrañagaren eskutik, 19:00etan, Herri Zineman.

ikastaroak

BEASAIN:

Azaroak 6, 13, 20 eta 27an, sukaldaritza ikastaroa, 16:30etik 18:00tara, Martin Gurrutxaga sukaldariaren eskutik. Antolatzailea: Asmube.

bestelakoak

BEASAIN:

Urriak 24, Itziar Zubizarretaren eskutik ipuin kontaketa, Ezkiaga Auzo etxean, 18:00etan.

Urriak 31, Ipuin kontaketa Arrate Leundaren eskutik, Kultur Etxeko Bibliotekan, 18:00etan.

LEGORRETA:

Urriak 24, Joxe Mari Karrere ipuin kontalaria, liburutegian, 17:00etan.

erakusketak

BEASAIN:

Urriaren 28tik azaroaren 11ra arte, X. Aire zabaleko pintura-lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa, Usurbe antzokian.

ORDIZIA:

Urriaren 20ra arte, Aitor de Mendizabal eskultorearen erakusketa, Barrenan.

Urriaren 24tik azaroaren 20ra arte, Eduardo Txillidaren 'Juan Sebastian Bach-en omenaldia' erakusketa, Barrenan.

ikusentzuneakoak

BEASAIN:

Urriak 5, 'Pirinioak: Negu baten historiak', Aizkorri Mendizale elkartearen.

mendi irteera

Beasaingo mendizaleak

Urriak 21, Nafarroa Oinezara: Lodosa-Sartagudara.

Urriak 28, Murumendi eta Garina mendi-irteera 'finalistaren eguna' ospatzeko.

Azaroak 4, Txindokira.



- ✓ Aholkularitza juridikoa
- ✓ Entrepresa zerbitzuak
- ✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel.: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33

Kale Nagusia, 2 BEASAIN



Goierriko Akademia integrala

Interneten: KONTULTATU irakasleari
Beharrezko informazioa aurkitu
ikastekakademia@latinmail.com
<http://usuarios.tripod.es/ikastek>

Joan Iturralde, 5 ☎ 943 160 120 BEASAIN

ESKOLA LAGUNTZA

- * Gai eta maila guztiak
- * Lehen Hezkuntza
- * DBH, DBHO, Modulook
- * Zikloak
- * Unibertsitate maila

GOIERRIKO UNIBERTISTATEA

- * Marrazketa
- * Fisika
- * Matematika
- * Teknologia

TAILERRAK

- * Ortografia, kaligrafia
- * Irakurmena, idazmena
- * Testu komentaketa
- * Matematika, kalkulua
- * Logika, arrazonomendua

IKASKETA ARAZOAK

- * Errendimendua
- * Ohiturak, metodoak
- * Atentzioa
- * Emozioen kontrola

Udalak sustatutako etxebizitzaren salmenta



ALTZAGA

AZKEN ETXEBIZITZAK!

Guztira 180m² + lorategia

Informazioa:
Lanegunetan: 943 16 21 92
Larunbatetan: Altzagako Udaletxean (10:00-13:00)



Iñauti HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbki. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

Debaldeko iragarkiak

Etxebizitzak

salgai

- ➡ Tolosan etxebizitza berritua salgai. 943654679.
- ➡ Donostian, Egian, etxea salgai. 2 logela. 659729135 (arratsaldeko 5etatik 9etara deitu)
- ➡ Etxebizitza salgai Errioxan. Bi familientzako egokia. 629223722.
- ➡ Ordizian etxebizitza ganbaratua salgai. Berritua eta altzariekin. 943160930 - 687273126.

konpartituak

- ➡ Pixukide bat bilatzen dugu Lizarran pisua osatzeko. 699876702.
- ➡ Alokairuzko pisua eta pisukidea behar ditut Goierriin. 653735094.

errentan

- ➡ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da. Nekazal gunea. 948539381.
- ➡ Alokairuzko pisua eta pisukidea behar ditut Goierriin. 653735094.

lokalak

- ➡ Beasainen, Juan XXIII. kalean lokala salgai. Gremioentzako egokia eta garajeetarako zatikatzeko aukera. 943028462.

Animaliak

salgai

- ➡ Rottwieler arrazako txakurkumeak salgai. Pedegreearekin. Prezio onean. 943654493.
- ➡ Seter arrazako txakurkumeak salgai. Pedegree onarekin. 627411764.

opari

- ➡ Txakurkumeak opari. 639402594.

erosi

- ➡ Pastor aleman arrazako txakurkumea erosiko nuke. Aitor. 667955443.

Ibilgailuak

salgai

- ➡ Fiat Ducato autokarabana salgai. 1.900 TD. 5 plazakoa. 96. urtekoa. Extrekin. Beti garajeon gordetakoa. 667639120.
- ➡ Suzuki Vitara Har-top salgai. VI-S. 943187483.
- ➡ Hyundai Coupe 2000, 16 balbula, salgai. SS-AX. Extrekin. 619460248. Iban.
- ➡ Aprilia SR50 markako Scuter motorra salgai. Berria. 943884957. 14:00etatik aurrera deitu.
- ➡ Saab 93 diesela salgai. SS-BH. 943027912 - 699511901.
- ➡ Suzuki 600 GSX motorra salgai. SS-AJ. 45.000 km. Kaskoa. Asegurua datorren uztaile bitartean baliagarri. 350.000 pezetan. 626300157.
- ➡ Volkswagen Polo Confort Plus diesela salgai. SS-BB. 45.000 km. 1.150.000 pezetan. 943883504. Begoña. Denda orduetan deitu.
- ➡ Opel Corsa GSI salgai. Engantxearekin. SS-AF. 943161254.
- ➡ Ford Galaxi TDI monobolumena salgai. 7 plazakoa. SS-AZ. Umeentzako siloi integratua dauka. 2.300.000 pezeta. 639179821.
- ➡ 99ko krosetako Kawasaki motorra salgai. 627411764.

Bestelakoak

erosi

- ➡ Euskarazko liburuak erosten ditut, 1950 aurrekoak. Gai guztietakoak interesatzen zaizkit eta ondo ordaintzen ditut. Gotzon. 649699022.
- ➡ Egurrezko apalak hartu edo erosiko nituzke. (Liburuak jartzeko egokiak direnak) 943882278.

salgai

- ➡ Furstein etxeko pianoa salgai. 943885340.
- ➡ Egongelako egurrezko altzaria salgai. Egoera onean. Altuera 211 cm, zabalera 172 cm eta sakonera 40 cm. 60.000 pezetan. Bi lanpara opari. 678846282 (9etatik 12etara deitu).
- ➡ Somier mugikorra salgai, motorrarekin. Erabili gabea. 943-652893
- ➡ Mapex markako bateria salgai. 943880186.

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko lllantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Promozioa: auto ordua 1975 pta.

Aita Urdaneta ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

ARRIETA

JATETXEA

☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

➔ Eskopeta super-puesta saltzen da. 12 milimetroko kalibreduna. 943885936. 21:00etatik aurrera deitu.

➔ Ordenagailua salgai, inpresora eta guzti. Aukera ezin hobe. 50.000 pezetan. 943027818.

opari

➔ Goierritarra, Argia eta Jakin aldizkarien bildumak opari. 943450697.

Lana

eskaerak

➔ Gazte bat behar da igeltsero bati laguntzeko, Ordizian. Lan kontratua. 617566744.

➔ Ingleseko irakaslea behar da Zerainen, arratsalde, klase partikularrak emateko. 943801724.

➔ Euskarazko aldizkari batek bere kontuak eramateko langile bat behar du egun erdiz edo orduka. Goierrikoa izatea eta word, acces, e.a.-en ezagutzak baloratu dira. Kurrikulumak Ordiziako 131 posta-kutxara bidali edo 943161835ra dei.

➔ Herriz herri festetan jotzen dabilen trikiti talde baterako bateria jolea eta gitarra elektriko jolea behar dira. 652741093.

➔ 21 urteko neska, arratsaldeetan umeak zaintzen lan egiteko prest dago. Esperientziaduna. 943883654.

➔ Astebukaerarako zerbitzari euskalduna behar da. Esperientziaduna bada hobe. 943880044.

➔ Neska euskalduna behar da zerbitzari lanerako. Eguneroko lana. 943654009.

➔ Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko emakume bat behar da Beasainen. 943887484..

➔ Neska bat behar da etxeko lanak egiteko, orduka. 650728717.

➔ Zerbitzaria behar da Gaintzan. 943886243.

eskaintzak

➔ Magisteritzako ikaslea, ingeleran espezializatua, klaseak ematen ditu. 646280640.

➔ Umeen hezkuntzan espezializatuta dagoen 22 urteko neska prest dago lanerako. Arratsaldeetan. 619656463.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza

943 884 401

KAZETARIA

Goierri. Erref. 61238/4

MEKANIKOA

Goierri. Erref. 61094/3

ITURGINTZAKO APRENDIZA

Goierri. Erref. 61005/4

MADRINADORA OFIZIALA

Tolosan. Erref. 62312/1

PRODUKZIO TURNOKO ENKARGATUA

Zizurkilen. Erref. 62146/3

INTERNET IRAKASLEA

Tolosan. Erref. 61784/1

KIMIKA INDUSTRIARAKO LANGILEA

Andoainen. Erref. 61742/1

TORNEROA, planoen interpretazioarekin

Donostialdean. Erref. 61489/2

18 INKESTATZAILE

Donostialdean. Erref. 61652/2

UR BEROGAILUEN

KONPONKETARAKO TEKNIKARIA

Donostialdean. Erref. 61719/0

ETXEBIZITZA BERRIAK SEGURAN

HERRI ERDIAN

✕ 2 logela, egongela, sukaldea, jangela, bainugela 17.500.000 pezetatik hasita.

✕ Duplexa: 4 logela, egongela, sukaldea-jangela, 2 bainugela 23.000.000 pezetatik hasita.

✕ Garaje itxiak aparte 2.100.000 pezetatik hasita.



Azken etxebizitzak!

ERAGIN S.L. inmobiliaria Tel.: 943 474699 - 609 40 30 81
Marina Kalea, 10 - 1.F DONOSTIA

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta

Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN



Luistarrak

Duela 70-75 urte ateratako argazkia da. Datu handirik ez dago, baina Beasaingo Astigarreta eta Garin auzoetako luistarrak behintzat azaltzen dira.

Argazki zaharrak behar ditugu

Sail honetan argitaratzeko argazki zaharrak behar ditugu. Inork argazki zaharrak edukiko balu, dei dezala 943889612 telefono zenbakira. Argazkiak behin erabilita, itzuli egiten dira.

AIARZA KARROZERIA



EDOZEIN AUTO EDO
IBILGAILUREN
KARROZERIA, TXAPA
ETA PINTURA

Iurre lantegialdea, 10
☎ 943 88 05 65 OLABERRIA



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



Barandiaran
ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN



MUJIKAK
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



Salbatore

HOTELA
JATETXEA

943 888 307 / 943 888 362 ☎
Salbatore auzoa
BEASAIN

14 logela

Eguneko menua

Karta zerbitzua

Ospakizunak

Arte erakusketak



Zuzendaritza berria



Eragilea:

ARIN ERAIKUNTZAK S.L.

Informazioa eta Salmenta:

943- 49-38-73

Kalitatea

Diseinua

Paregabeko Ingurua

ETXEBIZITZA ADOSATUAK (SEGURAN)



arquimedia

25
Years
SWISSFLEX
We know how
to sleep.
Swiss
Made

Guk ospatzen dugun
bitartean zuk aurreztuko duzu

-%25

Swissflex koltxoietan,
somer batekin batera
erosterakoan

2001eko Abenduaren
15erarte



zure etsairik gaiztoena izango da



OHEAK ETA OSAGAIK - EDREDOI ETA ZORRO NORDIKOAK - BURUKOAK - IZARAK - KOLTXOI ESTALKIAK

ALFONBRAK - KUTXINAK - GORTINAK - BESAULKI MANTAK - LUMA EDO FIBRAZKO NORDIKOAK...

...ETA AURRERANTZEAN

keyton

"MULTI-MASAJE" BESAULKIEN

AUKERA PAREGABEAZ GOZATZEKO AUKERA IZANGO DUZU, ZATOZ PROBATZERA, JEIKITZEKO GOGOAK



BETIRAKO UTZIKO ZAITU.



model
tecno
multi-masaje



SWISSFLEX
GOBERNATZEN DUTZEN DUTZEN

amets
ATSEDENERAKO SISTEMAK

keyton
time for inspiration

NAGUSIA, 40 - C.P. 20200 - BEASAIN - TEL/FAX: 943 88 68 51